EGUNA JEL

Lgo. urtia | 46'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 23'gna. astartea | 15 eunen

Gaur 99 urte

Espartero'k gure diputaziñoak
españarretan biurtu ebazan.
Gogoratu euzkotarra!

Portugal'ek kontrol-esirik eztau nai

Abisinitarrak Graziani'ri egin dautsenaren ondoren aituak eta politikuak uste dabe Italia oker dagola Abisini, menderatuta daukola uste ba'dau.-Biyartik Paraguay'k alde egiten dau Laterri - Batza'tik. - Beste izparrak.

ORTUGAL'GO GOBERNUAK KONTROL-ESIRIK EZ DAU NAI. ARDI -SOLARI ESAKU KONDIZU

Lisboa.—Lateŕi Zaingo'ko Arduraduna'ren azalpen bat argitaldu eben atzo Portugal'go izpaŕingiak. Kontrol -legeari buruz egiña dogu azalpenoi. Portugal'en burujaubetasuniari, goimailari ta bertako bakeari ez yagokola kontrol-esirik an ipinterik diño azalpen oŕek. Ez sartzeko artu diran asmoak lapeŕiko izan ez daitezan Inglateŕa'k bere ikusleak Portugal'era bialdu dagiazala diño oaŕ oŕek.

Ikusle oŕeik baña kontroleko ikusleak dabezan eskubideak ez dabez izango ta kontrol Batzordearen mende, be, ez dira izango. Orixe eskatzen dautso Portugal'ek Inglateŕa'ko Gobernua'ri.

Portugal'go Gobernuak asmo onak dauzala diñotse beste Gobernuei. Bestela "Ez sartzeko Batzordea'n" ez ei -litzake egongo, beste Gobernuen asmoai ostopaak ipintekotan. Eta oraingo Portugal'en eskabideoi ostopo izan ba-daike, Batzorde'tik atara egingo ei -da.

ITALIAŔ ITXAS-GUDARIEN BASATIKERIAK

Shangai.—Txinar luŕaldeko zine -areto baten, Abisinia'ko guda peliku la bat iraganazi eben, eta bertan egozan italiaŕ gudontxietako mutilak, eun bat inguru, zarataka ta ostikoka asi ziran.

Txinar batzuk jo eta zauritu zituen, eta gauza batzuk apuŕtu.

PARAGUAY'K ALDE

Ginebra.—Lateŕi Batza'tik alde egi tea erabagi daula-ta, Paraguay'ko gobernuaren idazkia artu da.

Bi-artik, 24'gntik. aldegiten dauala, diño.

Igandez Arantzadi tar Engartzi idazle andiaren gogo aldez ospatu zan jaupa-zertzelada bi

"Kizkitza,'ren gogo-aldezko jaupar a eldu zan ostetzea, Begoña'ko Ama'ren txadonatik urten zanian.

Igandez Begoña'n

Igazi zan igandian, Euzko-Pizkunde eta Tipográfica General'ekuak eraldutako jaupa, Begoña'ko Andre Maria' ren eleizan, Arantzadi'taŕ Ingartzi "Kizkitza„'ren animaren aldezkua izandu zan.

Amaŕ laurden gutxiagotan, eleiza gustia ostez bete-beterik aŕkitzen zan, batez ere abeŕtzalez.

Amaŕetan Donosti'ko Euzko-Abesbatza'k eta Bilbao'ko Euzko-Gastedi'ko abeslariak. Olaizola'ren zotzpian jaupa ederenetaiko bat abestu zuten, berak dakiten eran, oso ederki, bakaŕ abeslariak gorengo azaldurik.

Jaupagilia Unzueta'taŕ Portunata izandu zan, Laguntzale Zarandona'taŕ Jaime eta Angulo'taŕ Jakinda.

Itzaldia, obeto esan, goizpargile Ebanjeliua garbi azaldu zigun Markaida'taŕ Imanol'ek Baita ere entzuleri esan zien, Euzkadi'ko Jauŕlari zintzuak gauŕko eleiz jaira etoŕtia "Kizkitza" bere bizi gusti-gustian uzkuŕtzaren "relijioa' ren"ixapelduna "campeon" ia izandu zalako izan dala.

Azkenian, Perosi'ren "Liberame" edeŕa abestu zuten.

Baita ere esan beaŕ det, Orbea'tar Perderika apaiz ŕ,iak eta Ama Eleiza Deunak agintzen duan eran eta lateŕi nacio gustietako Jauŕlari Gobernueri gustieri egiten zalon eren "peliz" jantzita Euzkadi'ko Jauŕlarien egin zitela ongi etoŕia ta ateratzian agufa.

Oitura dutelarik amaŕki batzuk ateŕa ziran eleizatik urteran.

Baŕiro ere laguntzen diegu atsekabian, "Kizkitza„'ren sendiari, "Euzkadi„'n eta Euzko-Pizkunde ta Tipográfica General'ekueri.

Zuk irakuŕle, otoiz gogoŕ Ingartzi abeŕtzale buŕukatua'ren anima aldez.

AIXERIXA.

ITALIAŔ GUDONTZIAK

Roma.—Tripolitania'ko itxas aldietan izango dira italiaŕ guda-ontzien maniobra ta ekiñaldiak.

Uŕengo ilaren epalaren 10'tik 21'gna. izango dira, eta Mussolini bera be, antxen izango da ikusle.

JENDEA LOKATUTA

Jerusalen. — Matxiñadara zaletasuna zabaltzen azi dirala-ta, gudarosteko izardun batzuk atxilotu dituela diñoe Irak'en.

Gobernua'k lekua uztu nai dabela ko agiria agertu dauala be, ba-diñoe

ORI DA TRAMANKULUA

Moscu.—Bultzi-edestian beste onako izpaŕik ez dozu irakuŕi izango.

Vladivostock'tik atara ta F. O. 17.635 bultzi-erabilkiñak saleroskets -tresnadun bultzi bat Moscu'ratu da. 20.870 kilometrotan ibili da. Ludiak biran daukazan kilometruen erdi ibili yaku. Bultzi-erabilkinoi eskatu egin dabe ikusi al-izateko. Tortika turbinadun luŕunkia ḍau. Minutuko 7.000 bira egiten dauz turbineak. Turbina oŕek iru ozkin egatzen dauz, bultzkiña ostu daiten. Ozkin (refrigerador) oŕek koprezko 2.600 tubo dauz; tubo oŕeik 5.200 metro dira luze. Tubo oŕeik metalezko azal-estalkiak dabez. Ur luŕuna ur biurtzeko tokian 1.700.000 azal oŕi doguz. 100 kilometroko 2.750 edo 2.800 litro ur-luŕun ur egiten dauz ta ur ori 90 gradotan atzera baŕuratzen da-ta, ortik sugaŕi asko auŕeratzen ḍa.

Urik artzeka 800 edo 1.000 kilometroz ibili daike. Bulzkin-oŕek bezenbait indaŕ daben beste bulzkiñak asikeran 23 tonelada ur artu beaŕ ei -dauz ta onek 7 tonelada artzen dauz. Ori gaŕantzitsu yaku, batez be, urik ez daben luŕaldeak zeaŕ burki-bideak egiteko ibilteko.

OINDIÑO EZ DA OSO JOPU

Roma.—Addis-Abeba'n Italia'ren virrey dalakoari egin dautsena dala-ta, italiaŕ eŕian zaŕastada andia izan da.

Abisinia osoro moŕoi eta jopu biurtu ebela italiaŕak, uste izan dabena, okeŕ be okeŕ dagola diñoe aituak eta politikuak.

Graziani ori eŕi dago, bañan ez txarto.

FRANTZETAŔ EGAZKINLARI BURUA, MAŔUEKOS'EN

Rabat.—Egazkela buru Denain kenerala eldu da uri ontara. Frantze'ko egaz-talde gustien nauzia da, eta egazkin-toki ta gañerantzeko arlo ortako gorabera guztiak aztetzen eta ikusten asi da.

España'ren agindupeko Maŕuekos luŕaldean militar asaldariak, alemanak lagun dituela erabili dituen naspila ta lazkeaz ba-dau zer ikusiril Frantze'ko agintari oŕen ostereak.

24 EGAZKIN PAXISTA ERATSI

Madrid.—Iragan astean, 24 egazkin eratsi yakez paxistei.

Igandez España'n

"Mussolini eta Hitler'en laguntasuna amaitu bedi"

Paxisten nausikeri ta laguntasuna amaitu dedin bake - zale diran guztiak batu beitez kontrol egoki eta gogorra ezarteko. Orixe eskatuten dabe millaka azkatasun-zalek.

MUNDU OSUARI DEIA

Valencia. — Malaga paxisten menpe jausi dala-ta, Paxismo ta gudearen kontrako Batzordea'k dei bat egin dautsa gizadiari, paxisten indar eta ez españaŕ asaldariak bakaŕik

Andik iges-egin nai daben 150 milla lagunen estulaŕiak aipatu daroaz, eriotz- leku artatik aldeteko ereti ta bide egokia aurkitu nairik.

Dei oŕek auxe diño: "Paxista-zale ez diranen eriotza eta jasarpen izugaŕiak bukatu beitez. Mussolini ta Hitler'en laguntasuna amaitu bedi. Ta europaŕ paxistak España aldetik uŕundu beitez. Jardun daigun egin, jardun. Paxisten nausikeri ta laguntasun ori amaitu dedin, bake-zale diran guztiak batu beitez kontrol egoki eta gogoŕa estaduak ezarteko".

IGESIKO GEYAGO BE

Brihuega. — Iradun asteko baŕirik ageriena paxistengandik igesi eldu diran jende pilak. Lenengotan banakako igesketak ziranaki oraiñ taldeko dira.

Bart, Castejon de Henares'ko guda -esi eŕizalitara eldu ziran aldre andi bi. Baña ez ziran esku utsik eldu gizon aldra oŕek. Bost pusil, morteru bat lau pistola, ta izkilazkaz bi ekaŕi zituen.

Larunbatez, ez zan buŕukaldi esatekorik izan. La Toba aldean, pusilezko jardun labuŕa baño ez.

PAXISTEN IGESI

Andujar.—Guda-oin onetan, baretsua izan zan larunbata.

Beŕogei lagun baño geyago, gizon eta andiazko. Villaharta eŕitik igesi eldu yakuz paxisten zigoŕak jasan nai eztu.

Pozoblanco'ko eŕizalien guda esietara jo eben.

Paxisten egazkiñak egunero bezela Baeza inguruan bonba urtika jardun eben.

Iruroget a amar bonba jaurti zituen, eta bat ilik eta zaurituak batzuk izan ziran.

Burnibidean ere, kalte batzuk egin zituan bañan ibilpide a galerazi ez. oŕaitio.

BESTEIRO'REN JOKABIDEAZ

Madrid.—Uri ortatik ezegaŕtik be ez dauala aldegingo-ta. Besteiro'ren jokaera zintzoaz ari da "El Socialista".

Esanak eta ikaspenak egi biurtzeko aldi egoki ontan, Besteiro'k ez dau azaŕkeririk nai. Argentina'n len asko ta ugari egin eikezan España'ren alde gizon oŕek, bañan ez. Emen geldituko dala esanaz, ta ereun ori beteaz, bere lagun sozialistei agertu dautsen eredu ta jaŕaibide orixe, egin eikinik egitada onuragaŕena da. Madrid'en lotu da, gerea irabaziko dogun leku ontan.

AUŔERA ETA AUŔERA

Malaga. — Miaja'gana jo eben atzo afastian izparkaŕiak. Jarama aldeko buŕukan bultza egiten dabenak eŕizaleak ziral a iñotsen. Paxistak gai eta tresna ugaŕi bildu ditue gure aurka.

Olantxe jaŕaituko ba'leu!, iñoan izparkari batek. Bai, erantzun eban keneralak, guda-tresna guztiak gorabera, gureak olantxe jardungo dabe, ziur asko.

IGANDEKO AGINTARI-AGIRIAR

Madrid - inguruetan: Escorial'en areriuak eŕi-aldezlien guda-lubanak suagatu dabez baiña kalterik ez eutsen egin. Eŕi-aldezliak eurak suagatzen asi ziran eta laster ixildu ziran.

Guadalajara'n: Erkaldaŕen kañoi ta morteruak gudaluban atzietan egozan paxista-taldeak banandu ebezan.

Tajo - Egoaldean: Algodor'go eŕi-aldezlien guda-lubanak suagatu egin ebezan paxistak, baiña iñor ez eutsen il ez zauritu, be, egin.

Eŕi-aldezliak adorez ekin eutsen. Paxistei iges egindako gudaŕi bat, be, etoŕi zan erkaldaŕengana.

Jarama-guda-oiñetan sutsu ekin eutsen eŕi - aldezliak paxisten - aurka ta lenengo guda-lubanetaruntz egin ebenean, eŕi-aldezlien erasoai eutsi eziñik, atzeratu egin ziran paxistok. Paxistok zapustu aundia artu eben eta guda-oin oŕetan paxistentzat gaŕantzi aundiko dan bide bat eŕi-aldezlien tiropean egon zan eta egon, be, ba-dago.

Eŕi-aldezliak kementsu ta gudari sutsu doguz. Euron menpekotasuna geituaz dua.

Eŕi-aldezlien egazkiñak, be, lan aundia egin eben; paxiste-taldeak egundokuetan astindu ebezan; batez, be, Pinto, bifinduta laga eben suagen-suagaz.

Beste Madrid inguruetako guda-lubanetan areriuok tiroka jaraitu ebenaŕen, lengo lekuetatik ez ziran atara.

Gañerantzeko guda oiñetan lengo senean.

CATALUNYA'KO GOBERNUAK DAMOSKUZAN GUDA - IZPARAK

Ipaŕ-aldean. — Alcubierre'n eŕi-aldezliak ḍabezan guda-lubanak suagatu ebezan asaldariak. Eŕi - aldezlien kañoiak ekin eutsen eta bestienak ixildu egin ebezan.

Beste guda-oiñetan lengo senean.

Guda zaingoa

Guda-Itxasgoa

Betorz Agintaritza ontara oraiñ azke dauden Isusi'taŕ Kepa ta Fernandez'daŕ Pantzeska "Nabaŕa" itxason tziko koipetzaileak.

Eurak euren bururik ezin ba'dute aurkeztu, betor etxekoren bat osagilearen agiriagaz.

Bilbao'n 1932'gko. otsaila'ko 22'gn Guda-Itxasgo'ko Agintari-Buruak.

Araba

Araba begira gagoz, bai, Araba'ko abeftzaleak, arabaf euskaldunak batek ere.

Zer itxaro beafko degu, ba, abeftzale ta euskaldun geranok, Araba aldetik? Asko gero, ene ustez, ta gai askotan ere. Ikusi dezagun gauf, ba, euskera, gure ele edef onetzaz, itxaro dezakeguna.

Araba... ¿euskalduna?

EGUNA euskera aldezko gaietan beaf beafenetakoa zan egunorokò yayo ontan, Araba'tzaz bein jardun asi eskero, euskerazko gaia lenengua izatea egokienik dalakuan gaude. Gañera orain irakufi dezaikeguten arabaf aftjan, euskeldunak ea erdiak izango dira ta.

Araba... ¿euskalduna? Ai, au egia izango ba litz! Gure barneko amets abefkoi aftean, auxe da, bestien gañez, biziagorik zirikatzen zaiguna.

Eta zala izango al litzake asmo ori betetzea? Ez ofelakorik; gaufko gudaren gurenda ondoren, ez deritzagu zala izango zanik gure ele maite au Araba'n edatzea; ofetarako gertu bait dago.

Alde batetik, Araba osua beraren tokietako izenetan euskaldun utsa da; auxe guztien jakiña da. Gero, bere erdeldun jardunetan ere egunero erabiltzen da euskel itz mordo galanta. Ezaguna da Baraibar jaunak, itz oietako asko bildu ta, egin zuen liburua. Au idazten duenak ere, bere efian bakafik, egunoroko jardunetan eta toki izenak aftu gabe, ea befeunen bat euskel itz bilduta dauzka.

Beste tik, Araba asi zan, arestian, euskera-ganuntz abiatzen. Efi txiki batekbertan euskera galzorian zalarik, tink ekin zion garaitz eta gauf, basefi ori, euskel magalean dago, lenengo mugafia izanik aufera juateko.

Geyago. Aspaldin Araba izan zan lendabizi euskera galdu zuena; ez, ordea, egun batean gefo; luzaroan (gauf ere ba dirau) izan da bertan euskera ta erdera alkafekiko guda latza; gure egunerafte erdera izan da garaile; euskera, atzeruntz; ezta izan, ordea, guztiz alpefik euskeraren galtze ori, guda ofen bitaftez. Bizkaia ta Gipuzkoa'rentzat, efi anai auek erdelpian jausi ez zitezten, esi edef bat izan bait zan gure Araba.

Araba euskotafa zan; bai ta euskaldunà ere. Egun, euskera ea galdua dauka; gutxienak dira Araba'ko euskaldunak.

Orajndikan, baina, Araba euskotafa da; ez du eusko-gogorik galdu. Azkenengo urteetan gogoz aftzen asi zuen jel'en befi ona ta gure gogai aziak ere uzta edefa ematen asi zuen. Aurki, Araba osoa abeftzaletuko da ta abeftzaletasunarekin batean, euskera ere, beraren mendi ta lauan, berez eta bizkof, edatuko da.

Len, orain bezela, ego aldetik zetofen oldarkadarentzat, Araba euskalduna, esi edefa izan ba zan, gaufgero esi ori gogotu beafezkoa izango zaigu, gero ta geiago; ofetarako, gure jan aundienak, arabaf euskaldun eta abeftzalecn indaf guzia; ofetarako ere, Gipuzkoa ta Bizkai'ko anaien laguntza izango degula ziur gaude.

Araba euskalduna... Euzkadi osoa euskalduna... Gogoratu dezaizkigun Arantzadi (G. B.) jaunaren itzak, beraren azkenengo egunen batian EGUNA'rentzako egin zuen gai onetzazko idazkian.

Araba euskalduna... Euzkadi osoa euskalduna... ori lortzea, bai izan beaf dala gure elbururik sendoena, maitagafiena.

UTAŔA

Bermeo

EUZKERA NAIZKO?—Goiz begiak zabaldu ditugula eta jaiki eta eleiz-ertxadoneratu, jaupa entzuteko asmotan. Eleizkizun berezia zan nunbait eta ustez "Las Marias" ziran ele'-ilditxoan. Eta egiaz, atzerakada egin nuan. Azierako "por la señal", abesti, otoi eta azkenengo itzak ere, guztiak erderaz, "euzkeraz" itz bat bera ere egin gabe. Ene! "Fazistan" eleizkizun bat ote zan ere... Noizko euzkera? Jaungoikoak sortu eta czaugafi eman zigun euzkera, eleizatik ufun botako ote degu? Gaubean "zinean" erabiltzen dan itzkuntza bera, goizean eleizarako? Euzkeraz itz egin dezagun. Euzkeraz beti, txaidean eta eleizan.

"EGUNA".—EGUNA goizero eskuratu nai izaten degu ta lortuko ba degu saltoki edo "kiosko" batera juan beaf izaten gera. Ez bai degu txaide-kaleak zeaf ikusten, beste izpafingiak bezela.

EGUNA irten kaleik-kale!

ABAŔAK.—Ez gera udaldi atzegintzua igarotzeko garaian, eldu Bermeo'ko efira. Biotzak, maitasunak neurtu edo egiteko garaia oraingo guda aldiak gipuzkoafai jafi digun ur-[illegible]netakuok. Bermeo'k bai ezautu duala izatearen aunditasuna. Eta biotza zabaldu, maitasuna gañez dario guztitik. Gipuzkoafentzat. Bermeo..

⁂

Ernai dabiltza etsaiak. Ez lo gureak. Kaia edo portuko ontzi pila ugari aftean, zer da baten jun etofia? A... Begi argiak daude noski

Itx[illegible]-zañak, talde bat, igez egiteko unean zirala, atxilotu dituzte.

⁂

Ingles guda ontzi bi ikusi ditugu emen urean. Zer jun etofi erabili duten ez dakigu, baña bai begi guztiak euroi begira dirala. Oraingo naazpilak ainbat gogora ren dakaftz...

⁂

Anai aftean era, Bermeo'n. Idazle anai aftean batez ere. Emen Urkidi jatofa. Emen efenderitafa dan "Litargi" ospetsua. Emen "I. de O." azpeitiaf argi-argia. Baita ere emen ikusi degu mutrikuaf "Kai-Alde" gaztea.

Aguf guztiori.

Ixaka

Azpeitia

DEYA

Lefo onen bitartez dei egiten diegu Garmendia'taf Joseba Mirena, Agifezabalaga'taf Eusebi, Garmendia'taf Bitore, Egibar'taf Sebaste ta Odriozola'taf Josebe'ri, azaldu ditezela udal etxe onetara Ibañez de Bilbao, 26, Cruz Roja Internacional'an izpafak artzera.

Endorea.

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Ixan. Los vascos somos, estamos y tenemos." Onixek ixenpuruboik dira igazi dan igandeko "Euzkadi" izpafingijak bere lenengo idazlanari ezafi eutsazanak.

Euzkotafa etxaguntza areyo agertutia, euzko-odola makaldubaz juatia ixango ei-ljtzake.

Euzko aditza, "ixan" ei-da, ba. Euzkotafak Euzkadi irasi eb-nian, jabetza osuaz egin ei-eben. Baña ez iñori ostuta, jabege zana, jabedun jafita bañot

Sas-aftian galduta aurkitzen zan lufa; basa-piztijak baño bixi ez ziran lufa, euzkotafak euren luf jatoftzat autetsi ei-eben. Eta lu-gane idoro bixi ixan ziran basa-pizti kaltegiñak, bafiz, erail.

Eta berez elkofa ixan zan lufa, lanaren ongafijaz, ekafko eta emokoftu egin eben, eta lanaren ordaña diran uzta aldintsubak emoten imiñi.

Beraz, iñori kendu barik lanaren besue tara etofi zan lufaren jabe, euzkotafak dira. Eta euzkotaf bakotxak geur-geuria dogun luf ori, sendi bakotxari yaokun etxaguntza ori, abefi matasunez matatu biaf dogu, ta abefi adorjaz aldeztu be.

"Tierra Vasca"

"La lucha secular de los vascos por sus libertades." "B. de O."k olantxe ixenpetuten dau safierako idazlana.

Igazitako gixaldiko karlatafen gudea buruz, eretxi-meretxi asko ixan dirala diño. Batzuren urtez, aldi aretako euzkotafak, euren "Fueruak" aldeztutiafen urten ziran. V Karla'gan ikusten e-ben euren eskubidiak aldeztuko ebazan aldezlia. Orduko liberaletan, ostera, eskubide areik deuzestuko ebazan zigofa.

Uskurtzea aldeztutiafen gudara urten zirala be, esan ixan da, uskurtzea zijotzat imiñifa elejzgixonak zirikatubaz, onein legazka edo privilejiuak aldeztuten urten zirala ta, abaf.

Egija, baña, auxe ei-da: orduko euzkotafak, euren efi azkatasuna aldeztuten urten zirala. Eta V Karla'ren aldez gudatu ixan ba-ziran, euren efi-eskubidien gaizkakundia Karla'ren eskubetan ikusten ebelako ixan ei zan, eta liberalen eskubetan euzko-efijaren jopu-okafija ikusten ebelako.

'Lan Deya"

Izpafingi onek "La Lucha de Clases" asterokuari erantzuten dautsa. Arek, itaune au egin ixan dautsa: "¿Han leído, olvidado o analizado en "La-Deya" "El Capital", de Carlos Marx?"

Itaun-era ori egitia ta ez jakiñak dirala esatia, bardiñak diralakua agertuten dau "Lan Deya"k.

Mingafijena, baña, beste au e-la: uste txafezko itaun ori agirijan egitia.

Orain, ¿zer erantzun?... Marx'taf Karla'ren domu edo "Capitala" irakufteko biaftuta egozanik be iñoz ez ei dabe uste ixan, ba.

Itaune ofek, beste eskabide batzuk atzian ixan ei dauz. Euzko-jangileak aldeztuten daben etxaguntzea ze eratakua dan esan dagijuela eskatzen dautse, ba.

Eskabide ori egin biafik be ez eben. Bakotxak beria aldeztuteko eskubidia dogula dakijanak, gustija daki ta.

Orain, baña, "Lan-Deya"k jakin gura laukena, beste au da: jabetza arauz Marx en domu edo "Capitalak" diñuana.

"El Liberal"

Asturias ziaf egin ixan daben ibilfaldija edestuten dau. Gijon'era eldu ixan dala, diño, eta an, gijondafak, gale garbiketan eta abaf idoro dabezala.

Gero, bafiz, Asturias eta Leon'go jaurlarija dan Belarmino jaunakin izketaldi txu bat ixan-guriak igifuta, Soto del Barco urira juan zan. Lufalde areil-iaf ibili ixan da.

Lufalde areik socialista lufak ei-dira ta, adizkide asko ikusi ixan ei ebazan

Gudeatzaz jakin ixan dabena, baña, gauza gitxi ixan da: aldijari itxaron biaf yakala.

Eta Asturias ziaf izpaf bila ibili txan dan izpafkarijak, geyagoko izpaf bafi bafik amaitzen dau bere lenengo zefendako idazlana.

"El Noticiero Bilbaino'

Gipuzkoa ta Araba'ko guda-izpafak emotian, efi aldezliak suagakaz Afasate'ko "Unión Cerrajera"ri egin ixan dautsezan kaltiak jakiñazoten dauskuz.

Aramayo-aldetik oldaftu ixan e-utsoen. Eta oleari egin ixan eutsoezan kaltiak aundijak ixan ba-ziran, ango notiñetan egin ziranak aundijaguak ixan ei ziran. Notin askotxu jausi ei ziran, jausi be.

Suagatzo a zala-ta, afasatetafak, lau ofijan ikaraz geratu e-ziran.

Eibaf-aldetik beste aldeko efekete bat etofi zala diño.

Eta arek be, orain afte etofi ixan diran gustijak esaten dabena esan ei-eban: paxiotafak erailketa ikaragafijak egin ixan dabezela.

"Euzkadi Roja"

Aldeztuten bakafik barik, oldaftuten eta aufka-egiten asi biaf garala diño.

Oldaftze-irakatsija Madrid'ek emon ei-dau. Arek, ba, aldeztutiaz batera, oldaftutia erabagi ei-dau.

Enparauak be bide bardiña eruango dabela diño. Eta ordu asko baño len, ipaf-alde gustija paxiotafai aufka-egiten ikusiko dala.

Eta azkenengo oldaftze au guda-gurendea loftuko dauana ixango dala uste dau. Ofetarako, baña, paxiotafen aufka dagozan gustijak jagi biaf ei-dira, ta bat-batera jagi be.

Graziani'ri jazoa dala-ta

Italiarrak ezin dabe igarri zegaitik izan dan eta burutik dabiltz.-Abisinitarren asarretzak eztabe etsi nai, biotz ankerren baten zitalkeritzat baño. Erbestetarrak saltsan sartu nai.

...—Eskuko-suagekin Addis Abeba'n Etiopia'n Italia'ren Ordezko Agintari dan Rodolfo Graziani zauritu dabe. Graziani'ri egin dautsezan zauriok azaletikoak izan dira, baiña ango egazkiñlari gudarien nagusi dan Liotta gudalburua ta koptotafen Gotzain El Abuna egozan Graziani'ren onduan eta biok zaur-zauritu egin ebazan.

Italiaf izpafingiok erdi-aitatu egin eben jazokun ori ta Izpafkari-Batza'n atzo ez ekien esku-suagok jaurti eutsezanok zuriak ala baltzak ziranik, efitafen erasoren baten asiera danik uste ez dabenaren.

Graziani'k, zauritu ebenean, Napoles'ko eregegai, Italia'ko eregeafaitzalien semearen jaiotzaren omenez bezuza edo eregaluak banantzen ziarduan.

An egoan talde aftean banandu ziranen batzuk gentea jaioi amaitu zala ta aldeten asi zanean jaurti eutsen suaga ofeik. Orixe diño Addis Abeb'ko izpaf batek.

Roma'ko izpafingiak jazokunofi buruz auxe diñoskue:

"Erege ordearen aurkako ausarkeri ofek efitafen politika asmuekin zer ikusirik ez daukala, zital eta erailtzale nabarmen batzuren asmo txafak sortua dala. Erailtze edo krimen uts etsiko dabe ta erailtze-asmo utsari yagokon zigofez zigoftu ta erailtze asmoari yagokon epaiz epaituko dabe. Europa'ko uriburuetan ofeitariko jazokun asko izan doguz ta etiopiafen gogoen azalpen ezin etsi daike."

Izpaf biribiltze oneik zer esan asko sortu dabez Italia'n. Oindiño oraintsu eragozpen bage Mogadiscio, Italia'ren Somalia'ko uriburutik, Addis Abeba'raño osterea 2.500 mila bide, 50 gudari lagun ebazala egin euzan.

Azkenengo izpafoi Italia'ko izpafingi-irarkoletara eldu zanean, izpafingietan gertu euken Etiopia'ko 23 jauntxuk menpekotasun-ziña III Victor Manuel'eri egin eutsenean Graziani jaunak ofei egin eutsen itzaldia. Etiopia zeiñen baketsu jafi eban berak iñuan itzaldi ofetan.

Itzaldioi jazokun itunoj jazo baiño apufitxo bat auferago egin eban.

Etiopia urtafilaren 24'gu. guztiz baketu zala iñuen Roma'n, 25 egunetan dunbada-ka jafaitu ostean, Haile Selassie'ren konatu dan Ras Desta menderatu ebenean, egin ei zan bake ori. Etiopia'ko bastaf guztietara eldu ei ziran orduan ibilpide berezidun gudari taldeak, eragozpen aundirik idoroteka bertako gudari jatofen aldetik. Talde oneik zuf ta kementsu jokatu ei-eben; gudari-antzo bage ertzainei yagokuenez jokatu ei dabe. Talde ofein ondoren bananduta 100.000 italiaf langile ei-labiltz bitx bal-giñan. Bitxabal edefik asko egingo ei-dabez.

Roma'n agiriz izpafingi batek esan dauanafen, Graziani'ren jazokizun ofetan atzefitafak parte aftu dabela uste da.

Mosku'k ofetan, be, ze-kusia ete-daben uste izateа ba-daike. Baltzak zuriei jatofiz dautsen gofotoaren-eragiñez egiña be, izan daikela diñue baltzen gogoak ezagutzen dabezan jakitun trebeak; baita efee-ordea'ri norbaitzuk dautsen gofotoaren-azalpen, be, etsi dabe beste batzuk, etiopiafok afo ta miriberak dirala ta.

Graziani'k izkiludun edo astodun etiopiafen bat zapustu ba-eban, etiopiaf ofek Graziani erail ba eben italiafak Etiopia'n daben entzutea ta ospez asko ondatuko ziran.

IZPAŔ BAT GUZURPETU

Valencia.—"L'Humanite,'k Gibraltar'en daukan izpafiariak paxistak edatu daben izpaf bat guzufpetzen dau. Paxistok Andre March aldun komunista edo baltsakeri-zalea Malaga'n il zala esan dabe ta orixe guzurpetu eban.

OVIEDO'KO IZPARRAK Euzkadi'ko Guda-Zaingoaren agiria

Igandean egun osoan, Asturias'ko Gudalcxe Nagusiaz eta Zaingo onetako idazkari nagusiaz, uneoro aftu-monetan egon zan Zaingo au. Rezola jauna, Oviedo aftuteko asmoz asi dau bultzakada onen jazoera ta goraberak zeatz jakiteko joan da ara. Oviedo ta Grado bitaftean arerioei gogof joten asi ziran gudariak.

Zaingoan aftutako agintaritza izpaf ugarien artetik, egindako joaldi ikusgafictaz edeski labuf auxe egingo dogu.

Gozeko sei ta erdietan. Avea erpiña aftu eben, Monte Naranco aldean paxisten lenengo esia zearkatuaz.

Pico del Pando aftu eben gudatalde batzuk, eta geroago, Oviedo ta Grado bitafteko bidea. Ta Pando urian azkaf be azkaf saftu ziran, eta berau gotortuten ziarduen lastefka afatsalde beluan.

Asturiataz gudasalak. Asilo del Fresno eta Plaza Toros aztu zituen. Batera, brigada bat, Ribelles eta Mata urietan saftu zan, eta Oviedo Grado bitafteko bidea bigafen tokian ausi eben. Gabeko azkenengo agiriak iñoanez, La Trecha aftu zan eta inguruko gañak.

Oviedo'ko irugafen brigadak Abere II degi zafa, Tanderina, Luneta kalia, Postigo atia, Fresno ta Gonzalez Besada kaleak, Urtegi zafa, Caseros Catalanes, Truebano ta Canteras aftu ebazan. Oviedo bafurantz asko egiñaz.

Cuartel de Pelayo inguruan egazkiñak sua emon eutsen, eta egazkiñen bufukea izan ondoren, paxisten bat eratsi eben, eta Monte Agudo'ra jo eban.

Azken izpafak diñoskunez, bigafen brigada Grado'tik 1.500 metrora eldu, eta esiak egin ta gotortuten diardue, ta beste guda-arloetan orobat, sendo.

Etsaiei aftu, eta orañafte zenbatuak onexek dira: 12 izkilazkaf, 80 pusil, kartutxera ugari eta atxilotuak, be bai naikoa.

Paxistak kalte andiik izan dabe; leku batzuetan bizkoftu eta eutsi nairik asi ziran afen, bafiro esetsiak izan ziran, batez be, La Robla aldean, Matallana afte jafaitu eutsen, eta burnibidea 70 metro baño geyagotan ausi.

Zaingo oneк atsegin osoz, auxe adiraz nai dautso Euzko-Efia'ri Igande eguerdian, Euzko-Jaurlaritza'ko lendakari jaunari otsegin eutsan Asturias eta Leon'go ordezkari Belarmino Tomas jaunak, eta "gure gudarien" jokaera bikain sendo eta azafia zala-ta, pozez egozala eta zorioneskefak agertuten eutsazala.

Gure lendakariak, bere, erantzunez zorion opa egin eutsan, auferakada ofek amayera zoritsua izan dagian.

Euzko-ziñoparen odola

Oraindik oraintsu jausitako euzko-gudarien odola irakiñez degu geure mendiotan. Lengo piloaren gaiñera, beste euzko-gudari gaste, lerden, bulartsu bene-benetako abertzale baten izena irafi beafean gera: Apolinar Olano'rena. (G. B.)

Gastea, 18 urtekoa, abertzale jator, zintzoa, abertzaletasunak aren kolkoan irakiñez pil-pil zegon euzko-miñari zizt eginda, Euzkadi aldezteko izkilua eskuratu zuan. Euzkadi aldezteari lotu zan eta egun oroigafi batez, arerioaren metrafak gorputza zauritu ta orain Erioren mende da aren soiña, Bizia'ren egoetan aren gogoa.

Igandez, Zornotza'n, Apolinar Olano (G. B.) zanaren gogo-aldez il-eleizkizunak ospatu ziran. Ostetza aundia batu zan.

Bizitzan lagun zuten eta lrupa'ko gudariak ez zuten astu il ondoren ere; danak eldu ziran eleizkizunera ta danak zuzendu zerura Olano zanaren gogo-aldez otoi sutsu bana. Zornotza'ko abertzaleak ere, danak erdu ziran otoi-egitera.

Neure atsekabe-agufik sutsuena Olano (G. B.) gastearen anaf Kresen eta Poli'ri, guda-oifean, jel-aldez, Euzkadi aldezten diarduten abertzale zintzoai. Berdin Olano'taf Txomin ildakoaren ildakoaren lengusuari.

Eta Goikoak, lufean bere otsein izan zanari, eman dagiola betiko atsedena zeruan!

ETXAZARETA.

"DEUN MIKEL LAGUNTZA"

Jon Deunen txadonan eta datofen igande goixeko zortzi ta erdietan, esango da mesa bat "Laguntza" onen irazle edo fundatorea izan genduan Arantzadi'taf Ingartzi'n gogo-alde.

Dear dagitzagu geure lagun eta aberkide anayari, erdu daitezan otoi egiten gugaz batean, aberkide eredu eta goralgafi onen gogo-alde.

Batzordeak.

Euzkadi'ko basterrak



Mendoza'ko gaztelubak

EUZKO-EMAKUMIAREN GIXARTE - LANAK

Euzkadi euzkaldundu

Euzkadi euzkeldundutia be gixarte-lana ete-da? Eta gixarte-lana ixanda be, emakumiona ete-da zeregiñori?

Bai, emakume; Euzkadi gixartia da; beraz, Euzkadi euzkeldundutia be euzko-gixarte-lana da ta atan be gurenetarikua. Euzkerea geure bixi euzkotafaren ikufatz ta jagolea da. Berau dala ta, Euzkadi euzkeldunduko ba-gendu, beste txori batek abestuko leuskigu. Gauf azke ixan afen. Idiakez gaxuak jasan ebazanak, jasan biafik ez eukan. Elitzakigu jazoko gauf latefi irakasliakaz efi-idazkarijakaz, eleakaz ta ainbat agintarijakaz jazoten jokunik. Euzkadi'k bixi bedegafa ta bere-beria artuko leuka ta gixar-nak eurak be beste tayu baten agertuko litzakez. Euzkadi'k bere ixakera bikaña igon ba'leu, ez geukan gauf txafkerijaren aurka dagigun guda anker-neketsuba egin biafik; Tolosa'ko jaupalburubak (arcipreste) iñuana, egi egija dala ikusi dogu: euskereak oin bat galtzeagaz erlejiñuak eun galdu daroyazala. Eta, bafiz, jel goiburubak bafuan daroyazan eskubidiak geugintzeko euzkera bidia baño bide ziufagorik bai-ete? Odolez gofifuta Latefi españafak emon dauskun Euzko Araudija gixar-nau egiteko egok-egokija dalakua daukagu ta Euzkadi-Jaurlaritza'k euzkerea indaftu ta sendotuko al dau... Aulan ba dagi geure adimen-bijotzetako ames gozua dan euzko-azkatasun txori alaitsuak lastef dau gozoro ta estitsu geure baso-mendijetan abestu.

Baña, Euzkadi euzkaldunduteko biafkuna emakumiona ete da?... Euzkadi euzkaldunduteko biafkuna euzkotaf guzti guztijona da; euzko odola sanetan daroyen gustijena. Neure ustez, baña, lan latz onetan biaftubenak euzko emakumiak dira. Zegaitik?... Euzko emakumiok euzkerearen galtzian efudunaguak garialako. Nok ukatu eguzki-argiz dakusgun egi biribil au? Eta efudunaguak garialako, bere pizkundian be biaftuaguak gagoz. Edo bafi-zaliaguak garialako... edo erderiari politaguatxairuagua deritxogulako... edo geure burubak andiki egin gura doguzalako... emakumiok euzkerea efuki barik zabartu ta bastertu dogu. Neska-mutilak diran sendi edo familijetan argi ikusten da egi au. Mutikuak, geyenez beintzat, etxian eta kalian erdera dagiie eta of oge; urte inguru eltzian, bestiak baño zerbait geyago dirala edo adierazo guran, euzkeraz itz-egiten jakenian, onetaraxe erantzuten dabe: "Euzkera gitxi dakit nik... Aztu egin jat. beti erderaz egiten dogu ta..." Eta nok ez dautse entzun neska basefitaf utsari eurai be jai egunetan uriko dantzaruntz majorik ta txairo datozala: "Buenos tardes... Adióz..." ta beste onetariko esakun bafegafijak?... Bizkai'ko efi aundi samafetan anaf mutiko euzkaldunentzat iruneskato euzkaldun ez diralako susmua daukat. Neskatuak, baiz, efi bakotxean mutikuak baño ugarijaguak dira.

Eta jakiña aldijagaz jazo biaf dana jazo oi da. Emakumia da sendiaren ama, umiaren azlia, umiaren irakaslia ta umiak amagaz eruan darue aurtzarua ta ama erdelzalia ba da, amak euzkerarik ez ba daki ezin umiai euzkerarik egin eta umiak ezin euzkerarik ikasi. Au tamala, ezta, euzko-irakufleme maitia? Nok ez dauz ezagutzen aitak euzkera jakin eta amak ez dakijanen sendijak? Eta eurotan umiak ez dakije euzkerarik, umien aftu emon ta arasuak ama eruan daruazalako

Geuria, ba, euzko-emakumiona da Euzkadi euzkaldunduteko biafkuna ta geuk-emakume abeftzaliok gura ba-dogu, lastef dogu euzkerea biztu, indaftu ta osotubaz zabaldu. Eta lan au gogotsu geure gain aftu ta eten barik alegindubaz egiten ez dogun aftian, ez daukagu abeftzaliak gerala esateko eskubiderik.

MAITE

Madrid'go izparrak

OŔEIK DOZAK MUTIL AK!!

Madrid.—General Polier kaleko espetxeko paxisten egazkiñak gabaz etozanean etxe baletik argiakin ezaugafiak egiten ekin eutsoen.

Ibili ta ibili argi-ezaugafiok egin euzanok eskuratu ebezan eta espetxeratu, be, bai.

Gizon ofeik Ceda'ko Miguel Carrera Castro ta Antonio Martinez dana dalakoa izan ziran.

MIAJA IZPAŔLARIEKIN BAŔIKETA

Madrid.—Auxe esan eutsen atzo izpafiariei Miaja'k:

"Jarama guda-oifiean gudaketan gartsu diñardue; erkaldafak ekin dautse.

Itxura ona dauko nirentzat ekifialdi ofek. Beste guda-oifietan lengo senean."

Izpafiari bateri erantzunaz erkaldafen egazkiñik ez zala atara atzo goizean esan eban.

Bizkai'ko itxas-ertzean ingeles eta portugaldar gudontziak ibilliko dira kontrola egiten

Eden, lanera.-Txiletarrak egazkiñak erosten.-"Ez sartzea", Irlanda'n.-Aden, ingeles kolonia. - Inglaterra'ren izkillu geitzea dala - ta amerikarrak ixilik. Frantze ta Alemani'ren salerosketarako artu - emonak. - Beste izparrak.

EDEN, LANERA

Londres. — La Riviere'n amabost egun aseleritsu emon ondoren, gauŕ asiko da lanean bariren baŕ Foreng Office'n.

Londres'era astelenez itzuliteko zan.

ESCOCIA'KO MARKESA IL

Londres.—Escocia'ko lenengo markesa Huntley markesa eritxoi il da, gauŕ goizean.

Larogei ta amaŕ urte zituen.

GREZIA'KO GOBERNUAK, EZ SARTZEAZ

Atenas.—Grezitaŕ Gobernuak España'ko gudan ez saŕtze Batzordeak emoniko agindua betetako, bere luŕaldetatik gudariak urtetia galazi dau, eta España'rako pasaporterik bere. ez dau emongo.

Agindu ortaz kanpo, izpaŕkariak eta negozio gizonak dagoz, euren lan eta nortasuna argi ta garbi azaldu ba'dagie.

KONTROL GUDONTZIAK NUN IBILI

Londres.—España estaduko itxasertzak ainduteko kontrola zelan ezariko dan azaldu daroe izpaŕingiak. Ez Saŕtze Batzordeko Komite aolkariak esan dauanez. "Morning Post"ek onelan diño. Kontrola ezarteko diran estadultako gudontziak onela jardungo ei dabe:

Bizkai'ko izpazteŕean, ingeles eta portugaldaŕ gudontziak; España'ko ipaŕ sartaldean, prantzetaŕ eta erusitaŕak; Ego aldeko itxasertzan, portugaldaŕ eta ingelesak; eta sorkaldean, aleman eta italiaŕak.

Izpaŕkariak diñoanez. Portugal'eko luŕadictan ingelesak ikertze arazua izateaz, tzi asko ta eztabai zerbait izan ei da.

Frantze'ko España'zko mugan 180 ikertzae ezaŕi ta Portugal'en 80 bakaŕik, ez eritxola esan eban Frantze'ko enbajadoreak.

CHILETAŔAK, EGAZKIN EROSTEN

Santiago de Chile.—Chile'ko Gobernu' arentzat egazkiñak erosteko juan-etoŕiak egitera lasteŕ urtengo da batzorde bat.

Egaz gayak Italia eta beste eŕi batzuetan erosiko ditue.

ADEN, INGELES KOLONIA

Londres.—Joŕalaren lenengoan aldaŕikatuko dabela. Aden ingeles kolonia etsiaz, diñoe

Orañaŕte, babespetu edo protectorado izena izan dau eskugoarauz.

BELBIL-ERAKUSKETA

Berlin.—Urtoro egin oi dau belbil-erakusketa nagusia larunbatean asi zan.

GUDA - ARGAZKIAK



EZ SAŔTZEAZ IRLANDA'N

Londres.—Irlanda estadu azkeko legetxean 65 boto alde ta 39 aurka dirala, España'ra irlandaŕak gudari joatea galazi dabe. Orobat guda gayak erotea. Laborista alderdiak ez dabe esku aŕtu autes kunde oŕtan.

ABISINIA'TIK DAKAŔEN DIRUTZA

Mjlan. — 1935'gaŕenetik 1937'gaŕenera Abisinia'n lanean dagozan italiaŕak 1.122 miloi lira bialdu dabez euren sendietara. Oŕez gaiñera andik etoŕi ziranean eurak aldean ekaŕi eben dirutza ipiñi beaŕ da.

AMERIKAŔAK IXILIK

Milan.—Washington'go politikuen aŕtean Ingelateŕa'ren guda-ontzi geitzeari buruz ez dabe ezer esaten. Izpaŕlariekin Roosevelt jaunak izan dauan jardunaldian ara zuori buruz ez dau azalpenik egin, arazo oŕeitan jakitun diranekin autuoi astertu beaŕa ebala esan eban bakaŕik.

Guda ontzitan Ingelateŕa'k bezen bat euki beaŕ dauzala Ipaŕ-Amerika'k, be, diñoe batzuk, Washington'go egiuneak diñonez.

ESPAÑA'RATUTEA GALERAZO

Lisboa.—Portugal'go Gobernuak portugaldaŕ gudariak España'ratutea gebentzen dauan lege bat onartu d.u.

Agindu ori argitaldu ostean España'ra tuten diranak, portugaldaŕ izatetik yatorkozan eskubideak galduko dauz.

LANGILEAK OPOŔA

Paris.—Lion'go Grenoble ta Saint Etienne irarleolatako langileak bariku-gabaz opoŕa asi eben. Astean 5 egun lanean eta egunotan aspi ordu lan egitea eskatzen dabe langileak; ugazabak 6 orduko 6 egun lanean egin dagiezala diñoe ostera.

Larunbatea Lion'en izpaŕingirik ez zan argitaldu.

KLENBOECH ALEMANIA'N

Berlin.—Alemania Diruetxe'ko landakari Schacht'ek Austria'ko Diru-Etxeko lendakari dan Klenboech jaunari "lunch" bat emon dautso. Lateŕi bioi yagokuezan diru aŕtuemonak atonduteko asmoz Berlin'eratu da "Klenboech".

FRANTZE TA ALEMANI'REN SALOSKETAK

Paris.—Ila onen 25'gaŕenean asiko ditue Berlin'en, prantzetaŕ eta doistaŕ eŕien aŕteko salerosketa aŕtu emonak atondutteko autu ta izketaldiak, aldaketak eta ordainketak egiteko bide ta erak erabagtaz.

BEGOÑA'N

Iragaŕi zan lez egin zan, igandian, Arantzadi'taŕ Ingartzi zanaren gogo aldezko ejejzkixuna, Begoña'n.

"Euzko-Pizkundia" ta "Tipográfica General" bazkunetako Aolku-Banakaritzeak eraldubu ixan zan txadonkixun ori. Beraz, eurak be, an ixan ziran, eurak eraldutako txadonkixunian.

卐 卐 卐

Euzkotaŕak maŕe ixan eben Ingartzi zana. Euzko-abeŕtzaliak, baŕiz, maŕe be maŕe.

Igandeko ejeizkixunjan be, maŕetasun ori, argi ikusi zan. Goirengo maŕatik asita berengoraŕteko gustijak, araxe, Begoña'ko Ama Neskutza'ren txadonara juan yakazan, ba, ta bakotxak bijotzetan gordeta eroyan maŕetasuna, agirijan erakutsi eutsoen. Bijotz-baruhetan gordeta eruan eben maŕetasun ori agirijan erakutsi eutsoenak, Euzkadi'ko lendakari jauna-gandik berako eŕi abeŕtzalia ixan zan.

JAUPEA

Amaŕ-amaŕetan asi zan, jaupea. Untzueta jaunak esan eban, eta Zarandona ta Angulo jaunak, lagundu.

Goikoetxea jaunarena ixan zan. Eta Gorosaŕi jaunak txauneskiñez lagundubaz, Euzko-Abesbatza'ko ta Euzko Gastedi'ko abeslari trebiak abestu eben. Zelan abestuko eben itandu biaŕik ez dago, mats onetik ardau txara urtetia gauza gatxa ixaten da-ta.

GOIZPAŔKIJA

Markaida'taŕ Imanol jaupari gastia ixan zan goizpaŕki-atzalpena egin ebana. Matai'rena ixan zan.

Eta arek esan ebanentz, aldi aretan. Kepa, Jagoba ta Jon eta onen anaya, mendi garai batera eruan ebazan, Josu'k

Eta antza aldatuta aurkeztu yaken: aurpegija eguzkija baxen agi, ta sofiekuak eduŕa baxen zurt ebazala. Mois eta Eli agertu ziran Josu'kin itz-egiten. Kepa'k orduban Josu'ri esan eutsan: Jauna, ondo gagoz emen; iru txabola egingo doguz, nai ba-dozu, bata zuretzat, bestia Mois'entzat eta beste bat Eli'rentzat.

Izketan iñardubela, odei argi baten itzalak estaldu ebazan, eta odei-baŕutik abots bat urten, iñuala: Au da nire Seme matia, nire atseginak Beragan daukadaz; entzun egixube. Ikasliak itz oneik entzunda, oso bilduŕturik, auzpez jausi ziran. Baña Josu auŕeratu ixan yaken, eta ikutubaz onantxe esan: jagi zaŕeze, ez bilduŕik ixan. Eta begijak iaso ebezanian, Josu baño beste iñor ezeben ikusi.

卐 卐 卐

Markaida jauparijak, goizpaŕki-atzal bena egitjan, egunari egokijozan itz egokijak oguzi ixan ebazan. Goizpaŕki-azaltze aretan uts txikitxu bat uaŕtu geban ofatiño: euzkerearen utsa, euzko-abendele maŕiaren utsa...

ANTZEŔKI-JAYA

Bilbao'ko Emakume Abeŕtzale-Batza'k, tragaŕi eban antzeŕki-jaya, ospe andiz ospatu ixan eban.

Nikola Deuneko antzokija osuan bete zan. Antzoki au, olako antzeŕkixunetarako-ta, berebixikua da. Dan baño pizkatxu bat aunditxubagua ba'litz, oba baño ez.

卐 卐 卐

Agiŕe'taŕ Domeka jauparija ta euzkel-idazle trebiak idatzi eban "Garoa" idaztjtik aŕtutako alkaŕ - izketa polit bat entzunazo euskuben gipuzkoaŕ emakume gastetxu bik. Zabaleta eta Azkaŕaga'k, etxekandra sendi-maŕalien egin bjaŕa, gaste bi areik, ondo bete eben. Diran beste gaste ixan ez ba-lira, baña, etxekandra urtetsuben egin biaŕ ori, obeto beteko eben.

Edozetara be, baña, Zabaleta basetxeko etxekandra maraiza ta Azkaŕagakua be, artezi-artezi agertu ziran. Eta egia ixan eben lanak, txaluak-ixalo irabazi ebazan. Ba-yuakijuez geuriak be.

卐 卐 卐

"Miss Mox Xapi" jazokuna, jazokun baŕagaŕija benetan. Baña bai egija be.

Nauskerija, aŕokerija, iñor ez lakua ixatia ta norberari begira ludi gustija imiñi gura ixatia baño besterik ez dauan gixakijak, ezegatik be aldatuko ez dan maŕasuna, zelan ixateko...?

"Moxta", jatetxeko sekamiaz jazo zan jazokuna, ludiko gixakirik geyenakin jazoko litzakena da. Audikerijetan besterik ez lako aupatuba ixatia atsegin ez yakana, ¿nun idoro?

Neuŕitik kanpoako aundi-guriaren ordeña, guzuŕezko "Miss Gipuzkoa,,'k ixan ebana ixan o-la: "Miss ez Mox, Xapi" baño.

Neuŕitik kanporako aundikeri-atzian dabiltzanentzat, ikasbide polita benetan. ¡Alako baŕe egiteŕik...!

卐 卐 卐

Beŕaondo'ko azkenengo tanbolinteruaren jazokuna be irakatsi aundikua ixan zan.

Varela artezijak edeŕto bete eban bete be Pedro Martín'en lekuba.

Nabaŕa erkiko Beŕaondo euzko-eŕi maŕia baxen zoritxaŕekuaren gogua ixan zan Pedro Martín, ixan be.

Eta Pedro Martín Beŕaondo'tik Argentina'ra juan zanian, ordu aŕte euzkeldun utza ixan zan Beŕaondo, euzkerea galduten asi zan. Gogua i-zkero, soña be, il egiten da, ba. Beŕaondo'ren euzko-gogua, euzkerea ixan zan. Eta Pedro Martín atzeŕiratu zanian, Beŕaondo, gogo-barik geratu zan; euzkerea il-egin zan... Eta euzkereaz batera, euzko-oŕura garbi edeŕak be.

Eta uŕtiak-urte Argentina'n igazi-ondoren gastaroko ames zoragaŕijetan bere bixitzako azkeneko egunak igazteko asmoz Beŕaondoratu zan tanbolinteruak, bere jayo-eŕija ez eben ezagutu. Biztanlien oŕurak ezaunge ta iguin ixan yakazan, eta izkuntzeagaŕokua aldatuta idoro ebezan. Len, euzko-gogodun ixan zan aldijan txalotuten eban jayo-eŕijak, orain, euzko-gogua galdu dauanian, iŕi egin ixan dautsa, ezaungetzat aŕtu, atzeratutzat eta ez jakintzat ezetsi.

Pedro Martín itun eta bijozminduta jaŕi da, gogua galdu ixan daben eŕijan bixi gura ez da, euzko-gogua bixirik dauan Argentina'ko abeŕkide matiekanuntz egiten...

Euzko-gogua galdu ixan daben euzko-eŕijentzako, berau baño antzikuŕ edeŕagorik ¿bai-ete...?

卐 卐

Beste bakoitzketa baŕegaŕi batzuk be ixan ziran.

Antzezlarijak euren lana, ondo baño obeto bete eben. Eta saritzat, txaluak-txalo irabazi ebezan.

Antzezlarijak eta Bilbao'ko Emakume Abeŕtzale-Batza'k be, txalo batzuk irabazi dauz. Antzeŕkixun oneik txalogaŕijak dira ixan be, abeŕtzaletasunari laguntasun aundija egin leikijuenak. Txalotu dagigu-zan, ba.

"HARAKIRI"

Japon aldetik egatua da beŕi au:

"Eriotzaren Batza,,'ko ogeitazortzi lagun, une berian eta Tokio'ko leku nabarmenetan saildurik bere burua "harakiri" erara erail dute. Zioa, Gobernuak eŕia bear bezela zaindutzen ez dualako asaŕea azaltzea izan da.

Japondaŕ oien abeŕtzaletasunaren geigekeria ez degu txalotuko. Ezin onirtzi guk onelako eriotzik.

Baña abeŕtzaletasunaren indaŕa neurtzera jaŕi ezkero begiak zabal-zabal eta biotza urduri jartzen zaigu, ogeitazortzi japondaŕ gizajo oien azkena ezagutu utsez.

Oso-osorik, ezpajrik gabe, baztartzen degu erailketa. Ben-benaz kupitzen gera ogeitazortzi abeŕtzale oien abeŕi miñaren zentzungeaz.

Eriotzara eragiñazi dien zioa ausnaŕtuaz ordea oldozkor geldi gera, lotsaz masalak goŕi zaizkigu: gure biotzean gordetzen degun abeŕtzaletasuna epela, utsa, aula deritzaigu.

Abeŕia, gure Euzkadi kutuna, aŕiskuan arkitzen da, amildegian bera iztutatzeko zoritxaŕean dago, fascioaren atrapaŕ ikaragaŕiak estu-estu egiñik dauka, itotzeko zorian euki ere. Betiko galtzeko aŕixku laŕjan ikusten degu abeŕia... Alare gura laguntza piŕiña da, gure kemen guziak ez ditugu bere aldez jaŕi, gure bizia ez diogu eskeñi..

¡Eta abeŕtzaleak gerala esaten degu! ¡Abeŕtzale ikuŕak biotz gañean, abeŕtzale itxura gure egikunetan, baña benetako abeŕtzaletasuna kolko baŕutik atera gabe!! Amaika olako..

Gure Euzkadi k ¡GEZURTIAK! oju gaŕatza egingo digu.

卐 卐 卐

"Harakiri" itzaren itzoŕkuna: "Hara", sabela. "Kiri", ebaki.

"Harakiri" erailkera onela da: sabela gurutze antzera ebaki.

Japon'en antziñatik ezaguna da "harakiri" erailkera eta, diotenez, XIV' gaŕen eunkian aintzatsu izan zan.

Geienetan, erailkera au abeŕimiñak eragiña izaten da.

A-BI.

Miin bako arrana...

Oraingo guda au bitarikoa dogu: lateŕi baŕukoa, guda oŕetakoa, ta lateŕitik kanporakoa, izpaŕingiz ta i raŕotsez egiten dana. Biak iraŕazi beaŕ ondo ibilteko.

Lateŕi baŕuko buŕukeari gogoŕ eutsin beaŕa daukagu, ba etxe baŕukoa galtzen ba-dogu, kanpokoak eztausku ezetarako balioko.

Mundu gustira zabaldu da guda a onen oŕsa, zer-esana ta baŕiketea, ta gitxi asko Europa'ko baster gustiak dardaraz ipiñi ditu, ez geureganako eŕukitasunez ¡ez olakorik!, eurei letoŕkioen gudeak ekaŕi leikioezan buruko min eta kalteakaitik baño.

Geure eŕiaren on-egiñak eta zuzentasuna erakusteko, atzeŕian zabalgundea egin beaŕa dogu gure eŕiaren portamentu onak oŕenbeste ta geyago merezi dau-ta. Euzkadi'k buru a garbi ta kopeta argi nun nai erakus daike. Emen eztogu izan, eŕirik geyenak beintzat, oŕ españaŕ luŕaldietan, ezker-eskumak, euki daben odol-egaŕitasunik: Emen etxakuz, Yaunari eskaŕak, gizadiaren lokaŕiak zearo uŕatu ta baŕeneko ustelkeriak azaleratu, abeŕtzaletasunak bere zintzotasunagaz ta aztiñaldi gaŕatzakaz zingira zikiñak ta ur geldi masalak sortutea galerazo daulako.

Gure abeŕiaren biotz-edeŕtasuna, gure eŕiaren zuzentza - maitasuna, gure abendearen yokoera-garbitasuna, mundu gustiaren aurean erakutsi beaŕ dogu, odolez egaŕituta, goŕotoz yosita, ankertasunez itota dabilkiguzan faxista oŕen egiñenekaz Europa gustiak erkatu dagiazan ondo erkatu, ganera.

Gipuzkoaŕ anai maitiekin egunokaz egiten diaŕduena, ezin besteko ankerkeria da. ¡Otso amoŕatuok! ¡Biotz zitalok! ¡Kristiñautzat ei-daukie, gero euren burua! ¡Yaungoiko laztana, zelan geratuko ete-da Eleizearen artalderik zindoena!

Mundua zeaŕ ots egin eta erakutsi daigun gure anai oŕekin egiten daben otsokeria, biotz oneko gizakume gustiak, zuzentasuna ta zibilizaziñoa, kistartasuna ta gizabidetasuna maite dabenak, katoliko nai protestanteak, zuriak nai baltzak, emen eŕi bik buŕukan darautzela ikusi dagien: euzko eŕiak, odolez garbi ta biotzez zuzenak, eta erdel eŕiak, odolez loidun ta biotzez otsoak, oŕetara nori lagundu. zeñen aldez borondatea erakutsi, ebatzi dagien.

Ots, ba, atzeŕian, ots Europa'n, ots Ameriketan, mundu gustian ots, mundu gustiak yakin dagian alde batekoak eta bestekoak zelakoak diran. Ots sendo ta eŕime, bestela badakizue esakuna: miien bako aŕana sasian ugertu.

PAGADOI.

"Euzkadi" egazkin - alde

Arambilet eta Pinedo Euzkadi'ko txapeldun

Ibarrondo eta Del Rio kementsu. - Llorente gipuzkoarra bizi ta ausarditsu. - 22.000 laurleko!!! "Euzkalduna"ko zulo-hazter guztiak bete-beterik. - Geure zorionik sutsuenak "Euzko - Gudarosteari".

Frank Aiken irlandar Guda-Zaingo'ko burukidea, gudaloro bat ikustatzen.

Euzkotar umien aldez



UMEAK EZITZEA

I

"Guztira esitzen da bat mundu onetan, guztira, aberatz ez izatera izan ezik, erantzun zuan Orlandi andereak.".—Henri Bordeaux. (Bizi bilduta).

Begira zer idatzi duan Paris'ko legegizon batek, France'n saria irabasitako liburu batean gauz eguneko ume azierari buruz:

"Ezitu, otxandu, ara emen oldozmenera eta idazkortzara datozen itzak gauz egunekn ume azieratzaz idatzi beaz danean.

Ikusten dezuten bezela abere osagilien izkera sartzen degu geure izketan.

Gauza onek eldu beaz zuan. Ara zergaitik. Gauz eguneko "materialismo" delakoentzako, itxasoko urak itxasgoran bezela geroago ta gorago datoren eta geure oldozmena bera ere ia ia ito bearean daukan materialismo abereti onentzako, ezkontza alkartze bat baño ez da eta ume berriz erderaz "producto" esaten zayona. Asketzi, ene irakurle, astakeri abek!

Augaitik seme alabak ezi edo otxantzea; iñoren aurera nola aurkestu beaz duten erakustea da; azaleko gauzari jaramon aundia egitea eta barungoari batere ez; adimen eta irudimena landutzea biotzari akle batera utzita.

Gurasoak umeari dioten maitetasunagaitik ez da ezer egiten. Egiten dan guzti-guztia arokeriz eta kanpokeriz egiten degu. Beste gauza guztien gañetik gurasoak gauza baten bila gabiltza: Geure semeen izen aundi bila".

France'tar beste idazle ospetsu batek—Henri Bordeaux—auxe dio: "Bizitzako bildurrik eultzi oi diote berekoi asko ta askori mutilzartzan, eskontzeko ausardirik gabe. Eta iñoiz edo iñoiz bat edo beste eskontzera jartzen baldin ba'dira, biotzari ezer gakdetu gabe notario delakoaren iritzia entzutera juan oi dira, ta emaztegayak zenbat diru ta ondasun dituan jakiten asti geitxoago eman oi dute, edera, osasuntsua, aziera onduna, zuzena eta ona ete dan jakiten baño.

Eskondu ondoren umeak ematen diote bilduf izua, eta aitatasuna al duten guztia aufeztu oi dute. Seme alabari bizitza ematea, ondoren latza eta astuna artzea da, zama neketsua, ardura eta lan aundiak nor bere buruaren gañera erakartea.

Augaitik, noski, gure artean umeak gauza bakanak dira, eta euren aziera onari buruz gure lan guztiak len-bait -len erkalaren idazkolaren batean sartzera zuzenduko dira. Bai ditugu ludi onetan beste zeinbat-eta zenbait lan eta ogibide, baña neketsuagoak, arduratsuagoak, eta gure semeak nekerik gutxienaz irabazirik seguruena afapatzea nai degu. Oferaxe eldutakoan ez degu gurasuok geyago buruausterik."

Gure euzko-abenda ordea, Jaungoikoari eskerak ez degu oraindik beintzat "materialismo" ofegaz ainbestean galdua eta gure umeai aziera ona eman al izateko beste era batzuek bear ditugu, eta batez ere beste elburu batzuek.

Izketan ari geranean bigun eta ixilki itz egitea; geure adizkideakin maitekor, azaltzea; aundigo edo zafago diranakin dedu ta itzalez aurkestea; geu baño gutxiago diranari bare ta poliki agintzea; gizazemeak emakumea agurtu beaz dutenean txapela kentzea; iñori ezer eskatu beaz diogunean mesedez eskatzea; iñork mesederik txikiena egiten digun guztian eskerak ematea; emakumeak zutik dauden lekuan gizazemeak ez exeritzea; eta abar, eta abaz aziera onaren agiriak dira. Au ezin ukatu.

Ez uste izan, ordea, gauza oyetan bakarik aziera ona asi eta amaitzen danik. Aziera ona ez da gizon edo emakumea ondo itzegiña ta begikoa izatea. Au aziera onaren arpegi bat baño ez degu. Aziera ona ematea gizon osoa, notin osoa egitea da, gizonak dituan almen eta indar guztiak onera zuzenduaz eta batez ere bere nalmena ta biotza landuaz.

ARITOKIETA.

Unamuno'ren semea zauritu

Madrid.—Zaurirurik gelditu diranen artean Unamuno'tar Mikel zanaren seme bat da, paxistaria.

BETE-BETERIK

Erañegun "Euzko - Gudarostea,,'k "Euzkadi" egazkin-alde ukabilketa ospetsu ta ziztagarienak eraldu zituan eta notiñak-notin joan ziran "Euzkalduna" pelotatokira. Aureragoko egunetan iragarri genduna: "Euzkalduna bete-berik. Orixe bai, bete-beterik. Pelota-toki zabala, aldameneko ikustoki, goi ta be, danetan genekusan begi ta danetan belarri.

Sa'n-Etxia'ko ikurin-zapiak ikusgarri zeuden palkuan. Antxe ikusi genduzen Eri-Zaintzako Arduradun Monzon'dar Telespor jaun agurgarria, Salerosketa ta Orniketako Arduradun Aldasoro'tar Efamon Mirena jauna, Janarietako zuzendari nagusi Gomez Beltran'dar Paulin jauna.

Gudari-Osategi'ko burukide nagusi Untzueta'tar Perdinanda jauna, lendakaritza'ko idazkari nagusi Irala'tar Andoni jauna, Euzko-Jaurlari Nagusiaren idazkari berezi Basaldua'tar Kepa jauna ta ostontzeko batzuk.

EUZKO-ERESBATZA

Iragarri gendun bezela "Euzko-Gudarostia,,'k eresbatza ere izentatu zuan ain apaiñkiro argitaratu zuan egitarau borobilean.

Ukabilkalariak euren jardunari ekin baiño len eta ukabilkalariak atsedon -aldi izaten zituzten batzuetan, biribilketak joteari eman zion Euzko-Eresbatzak.

IBARONDO'K KAZORLA LURERATU

Lenengo bufukaldia Ibarondo'k (77 kilo) eta Kazorla'k (76 kilo).

Ibarondo'k laistez egin zuan egitekoa. Aren etengabeko zartadak ia austuta laga zuten Kazorla. Ibarondo'k, zuza edefa eman ondoren, lurean luze utzi zuan bere aurkalaria. Kazorla, baiña, zuan kemen apurra agertuaz, jaiki egin zan. Jo ta ausi befiro ere Ibarondo'k. Ontan, epaileak Ibarondo zala garaile esan zuan.

Txaloak eta txaloak.

DEL RIO KEMENTSUA

Geure "speaker" berriak bigarren burukaldiaren berri eman zigun: Del Rio (bizkaitarra, 79 kilokoa) Kiñon (77 kilokoa) kantauriarraren aurka.

Ez zuan asko uste Kiñon'ek nor zan Del Rio! Kiñon'ek itxu-itxuan jaurti zuan bere burua aurkalariaren gorputzera, baiña, Del Rio kementsuak, zirt emendik eta zart andik, egundoko zartada bat eman zion Kiñon'eri, egundokoa baiña, eta zeraldo lurera jaurti zuan.

Epaileak zaspigarena zenbatu zuanean, Kiñon al zuanez eta tatarez jaiki zan. Beste egundokoen egundokoenik zartada bat Del Rio'k, eta korda gabe lurera Kiñon. Lurean zetzalarik, ezin geiagoz, ukabilla jaso ta galdutzat eman zuan.

Epaileak Del Rio izentatu zuan garaile ta ikusleak txalo-ots sutsuenari eman zioten.

Del Rio'k, 16 urte ditu oraindik Gastea, baiña, bulartsua eta, kementsurik ba'dago, kementsua.

PACO BUENO TA PASTOR MILANES'EN AGERKETA

Paco Bueno guda - ondean zauritua izan zala-ta, ezin ikusi al gendula Bueno-Rodolfo Diaz ukabilketa jakin -erazo ziguten gure bi "speaker,,'ak. Eta, ordez, Paco Bueno'k eta Pastor Milanes'ek ukabilketa - agerketa bat baiño ez zutela egingo.

Bi ekiñaldi egin zituzten, egokiak ala ere.

Bai batak eta bai besteak txalo ederik entzun zuten.

PUNTOZ, LLORENTE'K IRABAZI ELOY'RI

Desapiokoa zan bufuketa au ta jendea aretaz zegokion bai Llorente ta bai Eloy'ri.

Llorente'k (gipuzkoarra), 69 kilo eta Eloy'rek (bizkaitarra), 71 kilo.

Tiin...! Jaiki ta arnasa artzeko ere asti gabe, gogor ekin zioten. Atergabeko ukabilkadak. Gipuzkoarra ausarditsu. Lenengo "round" apur batez gipuzkoaren aldekoa izan zan.

Bigarren "round". Gogorago oraindik. Gipuzkoarra ausarditsuago beti ere. Eta orelaxe irugarrena, laugarrena ta bostgarrena ere. Gorputz-lotuan nai izaten zuan beti Llorente'k. Gipuzkoar "mutikotxoak" arituta utzi zituan ikusle guztiak. Bizia ta gogorra.

Puntoz irabazi zion Eloy'ri. Ondoren... betikoa, txaloak eta txaloak eta Llorente gora ta Llorente bera.

ARAMBILET, EUZKADI'KO TXAPELDUN

Bostgarren bufuketa, Arambilet-Isasti. Arambilet'ek (bizkaitarra) 65 kilo ta Isasti'k 65 kilo eta 200 gr.

Asi-asieratik ikusi gendun azkena, Arambilet'aren garaipena. Bizkaitarra biziagoa da, zoliagoa, egokiagoa, azkarragoa.

Amar ekiñaldiko zan bufuketa eta danetan Arambilet zan nagusi. Bizkaitarrak jo ta jo; gipuzkoarrak artu ta artu. Erbiñudearen antza artu genion Arambilet'eri. Ukabilkada zeratua, zofotza ta zolia. Eta anka puntan jokoa ugari.

"Arambilet Euzkadi'ko txapeldun" ots egin zuan "speaker berriak", eta ikusleak etengabeko txaloari lotu ziran.

Ondo merezia zuan Arambilet'ek.

ZUBIAGA-PINEDO POTO!

Tamalez izan zan. Guztiak onexen zai zeuden eta Zubiaga'k poto egin zuan. Bekaiñe zabaldu ziola Pinedo'k eta gelditu egin zan Zubiaga: gelditu beaz ez zanean, baiña, gelditu.

Txakurr amoratu antzo asi zuten buruketa. Zubiaga'k eskua nola-nai luzatzen zuan, aurpegia zintzegarri arduratsu aundi gabe. Ausarditsu. Pinedo Zubiaga bezin ausarditsu. Jokatu zuten une apurrean, Pinedo'ri tankera ta jokera egokiagoa susmatu genion.

Bekaiñe ordez zualako gelditu zan Zubiaga. Miñutu bat eta apur bat geiago igaro ondoren zan ori. Orraindik beste erdia baiño geiago palta zan "round" amaitzeko ta, gaiñera, epaileak ez zion gelditzekorik agindu. Zergatik gelditu orduan? Zubiaga'k izan zuan baiño zauritu aundiagoakin makiñatxu batek jarraitu izan dute. Gizona lurrean zeraldo ikustearen ez dasagu dasaguna. Orixe da beiñere naiz izan ez deguna.

Goragarri iruditu zitzaigun Isasti'ren jokabidea. Lenengo "round,,'tik argi ta garbi ikusi zuan irabaziko ez zuana, baiña, alegiñak - alegin egin zituan beaz zuan lekuan gelditzeko. Ikusleak saserak ordaindu egin zituana gogoan izan beaz zuan Zubiaga'k. Ez da egia? Itz dagitela bestela iru epaile gipuzkoarrak.

Ikusleak txistuka ta deadarka lotu ziran. Ondo? Gaizki? Ez dakigu. Baiña, sarera ordaindu zuanak...

22.000 LAURLEKO!

Igandeko ukabilketan 22.000 laurleko batu ziran "Euzkadi" egazkiña egiteko. Notiñak-notin "Euzkalduna,,'ratu zirala esateko, zein agergarri egokiagorik? 22.000 laurleko! Zenbat ikusle?

KUKURUKUKA

Ondoren, kukuru ederik egin zuten batzu-batzuk Maza'tar Joseba'k, Paco Bueno'ri.

Paco Bueno'k, Arambilet-Isasti irabazleari. Mendieta'k, Pinedo-Zubiaga irabazleari.

Beraz, Maza-Paco Bueno, Paco Bueno-Arambilet, Mendieta-Pinedo noiz ikusiko degu?

"Speaker,,'ak zjotenez, gaiñera, ukabilkalari askok eskeiñi dute euren burua.

"Ring,,'ean agertu ziran ukabilkalari artean Felix Perez eta Mateo Osa ikusi genduzen.

Eta... "Euzko-Gudarostea,,'ri geure zorionik sutsuenak emanaz amaitu nai degu. Goren-goreneko gurenda lortu zuan "Euzko-Gudaroste" ospetsuak eta beste askoren gaiñera bijoakio geure txalorik zaratatsuena.

Zubiaga'ren zauriarekikoa

ARGI TA GARBI

Pinedo-Zubiaga ukabilketan, iñork uste ez zuana gertatu zan. Zubiaga'k ustekabean, utzi egin zion jokoari.

Epaileak eta ikusleak, danak ao-batez, jafaitzeko ta jafaitzeko esan aren, beraigotarak iñondik ere ez zuala nai jafaitu erantzun zuan.

Osalariari dei egin zioten orduan eta zauria aztertu ondoren, auxe jakin-erazo zuan osalariak: Eskereko bekaiñean, ebaki sakona.

"Speaker,,'k Zubiaga'ren ebakiari buruz "ez-jakiñeko zerbaitek egiña" zala esan zuan baiña, gaizki aditu zualako izan zan.

Batzorde-Eratzailea'k.

Pelota

MUNGIA'N

Igaziriko igandez, Arien eta Kortabitarte'k bat eta erditik aterauaz Ubila I ta Urzelai'ri, iru ta erditik.

Lenengoak irabazi eben bategatik, joko osoan ortzetik ibili ondoren.

Bigarren jokoa, Ubila II eta III irabazi eutsen 22-14, Etxaniz anayai.

GERNIKA'N

Atzoko jokaldiak Ubila I ta Kortabitarte'k erez irabazi eutsen Kiru ta Mulabi'ko Txiki'ari, 22-16.

Iru ta erditik izan zituen ateraldiak.

Bigarren jokaldian, Ubila II ta III, Lete, Etxaniz I eta Otegi'n aurka.

Onek irabazi eben, 22-14.

EUSKALDUNA'N

Atzo afatsaldean, Olabarieta ta Lasa'k, Markines eta Guridi'ri, sei eskuraldiz irabaziaz.

Bigarren jokaldian, Lafuzea ta Ariondo'k Aginaga ta Pagoaga'ri zazpigaitik irabazi eutsen.

* * *

Lawrence w. Hermes jauna bere semearekin, berak asmauriko tramankulo bategaz, egazkiñai itz egiten.

España'ko gora-berak urdurituta utzi ditu Frantze ta Inglaterra

"España'n dagikenari begira egingo du Praga'n egingo duana", esan du "L'Humaniték"

Españar lateriko gora-berak urdurituta utzi ditu Frantze ta Inglatera'ko gobernuak; ez gudateko ondorenak-bide bakarrik gudatean nastatu diran paxistar laterien jokera bide baiño.

M. Marcel Pays "Excelsior" izparingian ziatz-ziatz esan du eta auxe esan ere:

"Gudarosteak eraltzeko eta gerokoari begira, Alemania'k eta Italia'k asko ikasiko dute.

Laterri biok gudatean nastatzeak urdurritu ditu Frantze ta Alemania. Onek nai duten nastea lenbailen amaitu ta gentza nagusitzea da.

Portugal'ek, Inglatera'ren erriketa edo politikari begi itxu egin eta Alemania ta Italia'ren altzora jo du. Europa'n bi alderdi baiño ez ote dira sortuko?"

"Le Populaire" izparingia paxistarak Malaga artu dutela ta, españar eskubiko izparingien poza aztertzeari dagokio:

"Badakite orain, españar "abertzaleak" mairuak eta atzerritarak baiño ez dira, italiarrak eta alemandarrak.

Arigarriagoa da, gaiñera, izparingi batzuek dagiten bezela, italiar eta alemaniar taldeak España'ratzen dirala esaten jardutzea.

Eta edozerk zizt egiten dien izparingi asko, baita erkaldarrak ere, ixil ixilik lotu dira eta, Mussolini'k eta Hitler'ek españar jaso baiño ez dute egiten izparingiok. Italia'k eta Alemania'k, baiña, eurenean jafaitzen ba'dute ta Laterri Batzak kontrolik ezarri ez, geure laterri onek, ezi guztiak apurtu ta, España'ko arazoari buruz, zernai egiteko eskubidea eskuratuko du."

"L'Humanite"k españar laterriko arazoa ta Txekoeslobakiarai egindako zema lotu ditu.

"Gentza zale guztiai jakin erazo nai diegu. Hitler'ek España'n gudatea irabaziko ba'lu, ez uste aren egarri-ametsak bertan bera amaituko litzatekezenik; ziur asko orduantxe iñoizko zoroen irakiñez asi; Europa zabalean izango litzake beste España'rik ere.

Alemania'k España'ko gudaroiñetan izkiluz jo ta ke diardun egunetan, diplomatiku kontuakin Txekoeslobakia'ren aurka erasoka asi da. Txekoeslobakia, alkar laguntzeko itunben bidez, Frantze'kin lotuta dagolako ote?

Hitler'ek Praga'n egingo duana España'n egingo duanarengandik zintzilik dago.

Bati euztea, besteari eragozpen egitea da: gentza zabaltzea."

Nekazaritza

Lugiñak asafe

Or sartu ta emen irten, naikoa alegin egin gendun atzoko egunean, baiña, Zaingo'n bertan ez gendun izparik jaso.

Oraitio ere Uribe-Etxebarria jaunak zerbait esan zigun.

Gabaz baratzetan lapurretan jardutzen dutela batzu-batzuk-eta, asafe ei'dira gure baserritarak.

—Olabeaga'ko Emakume - Batzorde bat izan det gaur emen eta endore jaunarengana bialdu det, neuriak-edo, artzen dituan, egunean baiño egunean lapurreta geiago somatzen dirala-ta.

Gu-geu, Bilbao'ko Udala'k eta Eri Zaiptza'k berak ere lapurretok beingoan amaitu ditezen, beaz diran neuri guztiak artuko ditualakoan gaude Bedar txafa sustraitik ebaki beaz ba'da, ekin lanari.

Igandean azi zan Oviedo'ren aurkako joaldia

Pico del Arca, "Cota 292", Trocha Meabe, La Regla, Fresno'ko laguntza -etxea, Tximist indar-etxea, Pando, Campo de los Patos'eko etxe batzuk, El Escamplero'ko etxeak, La Manda, Rivielles, Monte de la Parra'ko zugaztia eta El Porcon'en goya artu dira. - Gudariak La Tenderilla artu eta Luneta, Postigo Alto, Fresno auzua eta Gonzalez Besada kaliak artu ditue.

IGANDEZ OVIEDO'KO BULTZADA ASIERA

Gijon.—Larunbata gabez urduritasunez ebiltzan efizaleak. Goizalde lenean, gertu egoan dana, auferatzeko bultzakadan asteko. Agindariak esan bezela jarí ziran gudasalak; goizean goiz asi zan atakea alde askotatik. Efizaleak aginduaren esanetara, auferantz asi ziran.

Pando lufaldeak artu zituela, beresala jakin gendun. Gas eta tximistindaf ojaren urera eldu ziran, geroxeago. Leku ontatjk euren izkilupe euken armaolea, eta goizeko amafetan bultzada azkafez, esituta euken.

Izpaf atsegingariak, gero ta ugariago etorkiguzan. San Lazaro auzunean paxisten esia etenda geldi zan. Geroago, Asilo del Fresno eta Plaza de Toros menpe artu zituen. Egokitasuna gogoan, bultzada ori geldiagotuteko agindu eben goikoak, zerak obekiago egiteko.

Lenengo izpafok emotean, Oviedo'ko kalietan asi dira bufuka bizian, eta efizaleak jo ta ke diardue.

Paxistak, bultzada eta joaldi gogor onetzaz uste uste barik aurean artuta, gudaletxe eta jauregi gogofetara safitu dira, andik eutsi nayaz bultzada oneiri.

Zaspigafen ordurako, Cristo de las Cadenas eta Cementerio Viejo'rako bideak artuta eukezan erkaltzaleak.

Izpafok beingoan jakin ziran uri onetan, eta eria pozaz zoratuten egoan, bafian izkanbilik ateraterik ez yakon laketu. Oviedo zearo artutea ez baitda auntzaren gaberdiko eztula. Gudari azkafenak eta guda gai ugari dituela bertan Aranda koronelak, gogoan izan.

Paxistak mila ta bosteun inguru gizon gitxiagotuak izango ebezan, il eta zauritutan. Zaurituak iñora eroatea, arlo gaitza izango dabe, Oviedo ezi-bafu geldi bajta.



Mafazki onetantxe Oviedo'ikusi zeinke eta españaf eta euzko gobernuen indafak egin daben aurerak adea oartu.
Zenbaki edo numeroekaz markauta dagozafak igandean eta atzo irabazitako tokiak dira.
Ara: 1, La Tenderina auzua; 2. Regla; 3, Postigo Alto kalia; 4, Gonzalez Besada kalia; 5, El Fresno; 6, ur-ontzia; 7, tximistargi ola. 8, maniobra-zelaya; 9, San Claudio bitxabala.

JAUSIKO DA, BAI

Orixe esan eban atzo, Llano de la Encomienda kenerafak Oviedo'ri buruz: Oviedo aftuko dogu, bai.

AUFERA TA AUFERA

Gijon.—Afatsaldeko bostetan erkaldafak aufera duaz ta aldeguztietatik izpaf onak yatorkuz.

BESTE GUDA-ONTZAILETAN

Gijon.—Gijon yuakuz efi-aldezleak. El Escamplero'tik Oviedo'rako bidea zafatu dabe.

La Manjoya'n, be, ekifialdi aundia izan zan, eta ekifiadio efi-aldezliak asi eben.

La Cadellada'n Zoro-etxea suagatu eben erkaldaf egazkifiak.

GAU-ERDIAN

Gijon.—Amabiak inguruak dunbada zaratea zafatu zan ta zafatuaz duala dirudi.

Oviedo'n guda ikaragafia dogu. Kalietan difiardue jardun be. Erdi-inguruko kaleetatik dinamita-dunbotsak yatorkuz ta dinamita-gafok efi-aldezleak mundi-nora duazan darakusgue.

Naranco'n kementsu ta bizi difiardue efi-aldezleak.

SU-GAFAK

Gijon.—Efi-aldezlien suagaketak eta dinamita-durak Oviedo'ko etxe batzuk sutan ipiñi dabez. Erdi-aldeko-etxeak dira gaifiera sutan dagozanok.

SANTO DOMINGO URI-BASTAFA ARTU DABE

Gijon.—Alde guztietan zafaie jo ta jo efi-aldezliak. Oviedo'ko kaleetan aufera duaz ta erkaldafen mende dogu Santo Domingo etxedia.

¿Nori eskatu bada?

"¿Zer gertatuko da?" izenpurutzat zuen idazki bat dala bide jakitun egin naiz, guk nekazariok geren abere eta egaztientzako biafeko ditugun janariak ekatzea ez dagoela Nekazaritza Zaingoa'ren eskuetan, baizik Orniketa Zaingoak ekafi biaf duela.

Okef nagoen bada nere iritzian, eta aiketzi nere utz egitea bai Nekazaritza Zaingokoak, eta baita ain txukun "oafa" jafi dezuten "Tierra Vasca"ko nekazariok ere.

Gauf agertuko nai nuke zer afazoi iduki nituen idatzi nuena idazteko.

Askotan entzun izandu det, eta uste det afazoizko gauza dala, nork berak jakiten duela zeren eta zenbaten premia duen; eta bera ez bada ere bere lantegi edo lan motakoak; au onela izanik uste osoa nuen Nekazaritza Zaingoa'k jakin eta ekafi biaf zuela, guk nekazariok, gure abere eta egaztientzat biaf ginduzten janariak; bafian "oafaxo" ofetatik ikusten da berak eskatu biaf diola Orniketa Zaingoari eta onek txindia eskatu biaf befia Ogasun Zaingoa'ri; bide luzea iristen djot goserik dagoen txekof argal eta egazti abeslaria rentzat.

Nere asmoa baliteke okefa izatea, bafian agertu biaf det.

Oso ondo ikusten det Orniketa Zaingoak erosketak egitea efiarentzat edo efiko biztanlientzat, oyen zerzelada denak beren mendian izango dituelako; baita ere egoki izango da onek berak banaketa egitea efiarentzat ekafitzen diraden janari, erari eta beste onelako gauza denena.

Bidezko gauza izango da, nekazariok geure beafkizunak Nekazaritza Zaingoa'ri agertu eta eslatzea, berak bere mendian dituelako gure luf, abere, egazti eta beste gañerantzeko onelako zenbatza denak, bestetik befiz ofetarako egokiak diraden gazonak bertan dauden ezkeroz, iñor baña obeto jakin biaf dute gure premia nolakoa dan.

Au onela izanik, beafeko gauza, eta esango nuke nai eta naiezkoa dala bakoitzak bere beafkizunetarako erosketak egitea. Orniketa Zaingoak erosi ditzala efiarentzat biafeko diraden denak. Nekazaritza Zaingoak erosi ditzala eta baita zabaldu ere nekazariak bere abere eta egaztientzat biafko ditun janari denak.

Jakifieko gauza da, eta au banekin lenago ere erosketa oyek egiteko "txindia" "daukanak" eman biaf izaten zuela, eta au Ogasun Zaingo'an egongo dala iñun izatekotan, bafian bakoitzak beretzat eskatzea egokiena dala ere, ez didazute ukatuko.

Ara bada nere afazoyak, idatzi nuen bezela idazteko.

Eta bukatzeko eta nere deadafaren oyartzun txiroa Euzkadi'ko Jaurlaritza'rafio iritxiko balitzake, biotz biotzetik au xe eskatuko nioke; efiarentzat biafeko diraden janariak erosi ditzala Orniketa Zaingoak, eta aberientzat biafekoak, Nekazaritza Zaingoak. Au egiten ez dan bitartean gure abere gaxoak "hambre" mafoza egin biafko dufe.

EZTANDA

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Biyar, sopa-gayak, gozakia, arroza eta lentexak emongo dira. - Arrikatzez beteta itxasontzi bi eldu dira Asturias'dik.-Aberien narruak dirala-ta.

Lendakaritzan

Ageñaldia

Atzo goizean Inglatefa'ko kontsula Stewenson jauna izan zan Agife jaunari ageñaldia egitera.

Lendakafiaz izketan

Afatsaldeko ordu batentan artu ginduzan izpafkariok lendakari jaunak bere lan-gelan.

—Asturias'ko zerok ondoren onez azi dirana, ba-dakizue, esan euskun. Azi ezezik, jafaitu be, orlantxe egitea uste eta nai dogu.

Izpafingietan atzinduta ikusi ditut Guda-Zaingora emendik biailtako oafako esaera batzuk.

Ori dala-ta, Asturias eta Leon'go jaurlari nagosi, dan Belarmino Tomas'ek bialdutako zorion-agufaren bafi guztiak jakin dagien, argitaldu dagizuela nai neuke. Asturias'era joan ziran euzko-gudariak, azafi eta bikain jokatu dabela iñoan agufi ofek.

Nik bere, jaurlari nagozi ofi erantzun neutsan, asiera zoritsu ofek, azken bardiña izan dagiala opatuaz.

Erri-zaintza

Atzo, Zaingo ontara eldu giñanean, Efi-Zaiketako bigafen zuzendari nagosia osatuta, lanean idoro genduan.

Bermeo'ko igesketa auziaz

Bermeo'n igezegin nai ebela-ta atxilotuta dagozanak ezin leye oraindiño iñogaz itzegin. Auziko-raberak amaitu ufen dago, ta lasterf epaikariaren eskuetan lagako da, esan euskun Orueta jaunak.

Onetzaz, azalpen bat egin bear. Igezketa ortan atxilotua izan zan Irala'tafi Joseba. Ba-da beste bat izen abizen badiñetakoa, ta onek ez dau zer ikusirik naste ofezaz: Irala Korta'tafi Joseba, Euzko-langile Alkartasuna'ko bazkidea ortaz garbi dago.

Gizarte-Laguntza

Bilbao'ko Aufeski-Kutsa'k gure deyari ernatzunaz, 300 liburu bialdu dauskuz, Zugazagoitia jaunaren "Pederales".

Idazti oneik Ume-Egotegiei bananduko dautseguz.

Idazkari nagusiak, Aufeski-Kutxa ofi zaingo onen eskaf ona agertuteko, eskatu euskun.

Emokunak

Larunbatean jasotako emokumen efeskadea.

Estadu españazko irakasleak, 2.567,45 laufleko; Bilbao'ko konsul pantzetafak, 100; Bizkaya'ko Efedixa-alkargo batzorde eragileak, 50; Bizkaya'ko malegu-langilien batzak, 200; Rebelion de la Sal, Ubidea'n, 125; Udalean, libretaen arduragoka, isunetatik, 150; Gustiz, 3.192,45 lko.

Agertu-beaf deya

Zaingo ontako Idazkaritza Berezira, alik dasterfen azaldu bitez ufengo onek, sendiko gorabera batzuk jakin dagiezan:

Landa'tafi Bingen, Usansolo'koa eta Bulbain'daf Miren.

Salerosketa ta Orniketan

Afikatza eldu

Asturias'tik afikatzaz beterik eldu dira ontzi bi, ta bost mila ta bosteun tonelada ekafi dauskuez.

Beaf añako pila batutakoan, bananduko dogu liburutxo bitafiez.

Gomez Beltran jaunarekin izketan. Lanpetuta

Efetzeko ingi ta poxpolo-banaketaren befi eman zigun Gomez Beltran' daf Paulin jaunak.

—Ogeitalauan, eguaztenian, egingo dan bedaf-suku, gozoki, afoz eta lentexa - banaketa dala - ta, lanpetuta gaude.

Eta beste gabe, aguf egin genion.

PAXISTAK, MALAGA'N

Andik igesi eldu dan batek esandakoa

Gibraltar. — Malaga'tik iges egitea irjtxi duan salerosle batek, atzefitaf izpafkari bati egin dautsoz azalpenak, uri aftako gertaeretaz.

Malaga'tik natorkizu. Aste osoan ez dot jorik egin eta neure bizitzan geyago lo nasai egitekn usterik ez dot. Nik ikusi ditudanak ikusi ondoren! Amesak zirudien, bafian, ez, egi mingotsa dot. Atsekabe samifiez josia natorkizu.

Oraindio bere, umien eta emakumien intziri kafaxi ta arnas estu otsa entzun daroat. Aragi ta odol efearen usain txafa, atsa dot oraindiño ene usajmenean.

Malaga ez dozu orain uri, Azurtegi andi, ilobi edatua dozu. Idurimen bizienak ere somatu eta antzemon eziñekoa dozu ango gertaera baltza.

Malaga'n Franco'tafak bat-batean saftu baitziran, efirik geyenak iñora aldeteko astirik ez beterik ez eban izan. Oaftu ebeneko, Larios kalea bafena joyazan italiafak, Tercio'ko aldra batzuekin batean. Onein aurpegiak, musuk bai ikaragafiak!

Estadu Mayor'ekoak saftu ziran bezin lasterf, uritxo goi-aldeko atxeak aftu zituen italiafak, eta guztiak agindu bakafa ekafen.

Bandidu aldrak eratu zituen—ezin leikioe beste izenez eritxi-ta—, eta etxe guztietara saftu ziran goitik bera arakatuaz, eta gogof zitalkeriz atan be.

Etxietan aurkitu gizonak, kalera. Berogetamaf bat gizonka alkafi lotu, eta orma ondora. Ordun, aiztoak, kutxiloak atera, eta sisti-sasta, eta gero, tiroz josi.

Afatsalde baten, 50 lagun erkaltsale taldeak sei ikusi nituen. Gero, ilotzik geyenak, efekara bota. Besteak, Plaza de San Pedro'ra eroan, eta au gabaz sua emon eta efe.

Euren senaf eta semien aufe, emakume sozialista ta erkaldafak laidoz ta irafiez bete ditue. Ori jasan eziñik, iru emakumek balkoitik bera bota zituen euren buruak.

Gintza zaingoa

Abelgofien nafuak

Naru-arloak ondo erabili naizik, agindu bat emon da. Egindako gayak saneuriz jaso ez dagiezan, eta ien amaituta dagozan gayak eta laru gatzemonikoakaz gintza gizonak izaten dituen irabaziak gomutan izanik, agindua emon dogu, onela.

Lenengo. "Euzkadi'ko Egunerokoa,,'n agindu au agertu ondoren, abelgofi nafuen salketa neufia gorenak zein izango diran, ona.

Galzemon bako abelgofi-lafuak

Kilo batetik 9 1/2 kilora 2,00 laufleko.

10 kilotik 17 1/2 kilora 1,45 laufleko.

18 kilotik gara kilora 1.30 laufleko.

Abelgofi-laru galzemonak

Kilo batetik 9 1/2 kilora 2.50 laufleko.

10 kilotik 17 1/2 kilora 1,50 laufleko.

18 kilotik gara 1,55 laufleko.

Bigafen. Agindu au auzi dagienak zigoftuak izango dira; utsa nolako, zigofa alako. Ta gayak kendutera be eldu leitake zigof ori.

Osasun-zaingoa

Lan asko. Izpaf gutxi

Osasun Zaingo'ko zuzendari nagusi Mario Cordero jaunarengana jo gendun eta lanpetuta aurkitu. Ainbat arazo zituan eskuartean eta eurak azterlzeari lotuta zegon. Oraingoz buruausterik aundiena ematen diona, baiña, gaixoak bereiztea dala esan zigun. Lan saila ta astuna zafa, gaiñeratu zigun, eta bakoitzari dagokion jateko, oge t. a., ematea Zaingo'aren lepo dagola.

—Ostontzean, ez dago izpafik.

Ondoren, Labra idazkari nagusiarenganakoa artu gendun eta au ere lanpetuta idoro. Izpaf-galdera egin genion Labra jaunari ere, baiña, izpafik ez zuala erantzun zigun.

Ba-dakigu, baiña, Zaingo ontakoak orduak eta egunak lanari lotuta ematen dituztena.

Egunon

Andia izan da, ikaragafia esango genduke obeto esateko, Españia aldeko alderdi katolikoak, edo katolikoen artean agiri diranak beintzat, euskaldunen arazoeri buruz aldi guztietan erakutsi izan daben itsutasuna.

Euskaldunak, orain eta beti eskatu izan dogu, len gure gurasoak lur maite onetan izan zituen eskubide ta askatasunen zati batzuek: bafia, bafiro esan bear dogu au, gure irakurleen gogoan ondo erantsita geldituko daiten, Españia aldeko eskumataf alderdiak, ez ditue bein bere entzun nai izan, ez eurak agintaritza tokirik goirengoetan izan diran aldietan eta ezta ta azbitik aurkitu izan diranean bere, gure eskakizun zuzen ofen otsak.

Ona alderdi ofen itsutasun oker ta temati ofek, gaur ekafi dauskuzan zoritxafak.

Gure kontra bizi-bizi, su ta gar yagi dira, eta guk bafiz, gizoneri dagokien eran, bulartsu ta adoretsu erantzun dautsagu euren aupada zori gaiztoko ofek. Gure gasteri oso-osoa ari da gaur Españia'ko katoliko ofen aurka, sendo, kementsu eta zindo Euzkadi'ko guda oñetan, aberiari odol gofi-gofia eskintzen.

Beste efietako katolikoak ez eben lenengotan euskaldun katolikoen erabagi au ondo ulertzen; bafia gaur, arazo onetan argi apurtxoren bat bere egin da ta, ez dogu gure al dameneen ezetariko ifun lofatzik nabaitzen, dan-danak ulertzen dabe mundu zabalean, gure erabagi astun au zetatik datofen, eta zetan zuzentzen dosun bere bai.

Euzkadi'k bere eskubideak eskatu, eta eurok albait ariñen lortzeko bideak edozelan agitea zilegi dala autortzen dabe gaur abo batez mundu guztiko katolikoak, eta alde orotatik artzen ditugu gure biotzak baretu al izateko itz anaikofak.

Ez doguz ez, ain maitekor eta gogotsu egiten yakuzan biotz laguntasunak berealakoan aiztuko; eurok emoten dauskue, bene-benetan diñogu au, eurok emoten dauskue bufuka onetan su ta gar ekiteko edorerik aundiena eta biotz baretasunik bear bearena.

Bafia mundu zabalean ondifiokafen gure arazoaren bafi ez dakian katolikoren bat geldituko baldin bada yakin begi, ez dogula Kristo'ren legea ukatzeko pausurik egingo; bafia gure abefiaren alde egiteko beti egongo garala euskaldunak gertu.

ARUGAIN.

MUEBLES GUSTIETAKO KRISTALAK

GORBEA Y C.ª

41'gn. Alameda de San Mamés txaidian

11447 Ufutizkifia

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 46'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 23'gna. astartea | 15 eunen

Gaur 99 urte

Espartero'k gure diputaziñoak españarretan biurtu ebazan.

Gogoratu euzkotarra!

AZKENENGO IZPARRAK

Italiarrak eta abisinitarrak burrukan

Euki dituen asarrietan ainbat il eta zauritu dira.-Italiarrak gogozko gudariak galerazoten eta frantzetarrak mugak zaintzen.-Españar guda-oñetatiko agiriak.

Euzko gobernuaren ordezkaritzaren askundea Paris'en

Ingalanda'n



Gudontzi bati bat, uretan sartuterakoan.

PARIS'KO EUZKO ORDEZKARITZA

Askunde jayan Malaterre andereak eta Ossorio y Gallardo'k itz egin eben

Euzko katolikoak euren eskubide alde, gizabidez ta zuzenez diardue

PARIS'KO EUZKO-ORDEZKARITZA ASKUNDEA

Paris. — Euzko-Ordezkaritza'ren Paris'ko Etxea'ren askundea izan zan atzo. Madeleire Boulevard txaidean dago Etxe ori.

Lateñi-Batzarren ordezkari, Frantze'rena, Malaterre andereak izan zan jai ortara. Orabat, España'k Belgika'n dauan ordezkaria, Ossorio y Gallardo jauna, eta Euzko-ordezkaritzako lendakari, Pikabea jauna, beste askoren artean.

Euzkadi'ra egin dauan ostereaz mintzatu zan Malaterre anderea Euzkadi'n, kistañ-gauzak eta eleizkizunak azkatasunez eta jazapen barik egiten dirana bere begiz ikusi dauala esa eban.

Alderdi guztiak alkañenganako lotsa ta begiramena dituela, eta Euzko-katolikoak paxismoaren kontra oso osoan eta bañu garbiaz jokatuten dauala.

Franco paxistearen aldekoak zabaldu dituezan gaizki esanak, guzuñ bi ribil ugari dirala adirazi eban.

Euzko Gobernua, era guztietako alderdikideak osatua dago; alderdi eri zale guztiak dabe bertan ordezkaria. Batasun eta alkañ lotsa goragañenez dagie jauñ lan astunaren eginbide latza, zuzen eta egoki.

Euzkadi'ko bizikera ta izakerak, biotzean ikutu daust, iñoan. Eñi oñen aurka entzundakoak guzuñ dirala, ango lotsa, itzal eta gizabide zindoak irakatsi daust.

Gero, Ossorio y Gallardo'k itzaldi txo sakona egin eban. Azkatasun eta demokrazi aldeko gudean oraingoz, España aldean buñukatuten diran añen, guda ori Europa'ko demokraziaren aldezkoa da, iñolaz bere.

Paxismuak Euzkadi'ren kaltez iñungo goñoto biziena erakutsi dauan añen, euzkotañak euren eskubideak zainduten gogoñ, gizonkiro, adoretsu ta zuzenez asi dira, esan eban azkenez.

BATZAR UGARI TA

Londres.—Atzo, astelenez, batu ziran batzañan "Ezetan ez sartzeko" subkomitekuak.

Batzañ oñetan España'n diran atzeñitañak eta garagañilaren 19'tik España'n diranak urten dadizan erabili zan. Inglatera'k ezta baida au ainbat añiñen jañiteko guria ageñtu dau.

Ba gora-bera au Italia eta Alemania'ko subkomitekuak jañi dabe.

Atzeñi'ko indañei yoaken guda-ontzijen ibilbiderako azkatasunatzaz be jardun zan.

OPOÑ UGARI

New York.—Generals Motor belbil olatan ixan zan opoñaldija amaituta segola uste ixan dan añtian, beste iru opoñaldi sortu dira. Au dala ta buñukaldijak ixan dira.

GENERALITAT'EKO GUDA-AGIRIA

Barcelona. — Atzo gabeko bederatzijetan aldezle batzak emondako guda-izpañak auxe diñue.

Ipar aldian: Boltaña ingurutan zu-zkiluzko zunbaketak ezetariko ondoren barik.

Erdi inguruan: Ezertxu bez.

Ebro ego aldian: Lezera inguruan, Belen arerijuak guda-sendagitzak egiten ingurutara suagadak jaurti ziran. Zu-zkiluzko zunbaketa geratu bakua ta arerijuari ikusitako kaltiak egin yakazan. Azaila inguruan ikustaldi batzuk egin ziran, eta egokerak obatu, ta gogoñtu. Burburell eta Cornecon, morteruzko zunbaketa gogoñtxua.

Ego-baste aldian: Portal Rubio'n eta aitu dau. Eñi-aldezliak ederto gogoñ joten jañaitu dau. Eñi-aldezliak ederto eutsi dautse, baña erantzun, be, Montalban'en arerijuari suagadak jaurti yakez... Eñi-aldezlian egazkiñak ikusketako egaldijak egin dabez.

Beste guda-oñetan, ezta ezertxu ixan.

GOGOZKO GUDARIAK GALERAZOTEN

Roma. — Italia'ko Gobernu'ak zabaldu dauz dekretu batzuk España'ra gogozko gudariak galazotzen.

Urte bitik irurako espetxia jañi dau España'ra juaten diranentzako zigoña.

Beste zigoñ bat España'ra bakotxa bere gogoz lagi oneri iñi eginda juan-guria agertuten dabenari.

Onen zigoña sei urte eta egun baten beñuan dagona ixango da.

ITALIAÑAK ETA ABISINITAÑAK

Addis Abebba.—Italiañen eta etiopiatañen arteko buñuka gogoñak sortu dira. Gogoñtasun onetako buñukaldijan, ainbat ildako eta zauritu ixan dira. Italiañ agintarijak eñijari zigoñte gogoñak ezañiten jañaituten dabe.

AUÑERA TA AUÑERA

Gijon.—Añatsaldeko bostetan erkaldañak auñera duaz ta aldeguztietatik izpañ onak yatorkuz.

BESTE GUDA-OIN-SAILETAN

Gijon.—Gijon yuakuz eñi-aldezleak. El Escamplero'tik Oviedo'rako bidea zañatu dabe.

La Manjoya'n, be, ekiñaldi aundia izan zan, eta ekiñadio eñi-aldezliak asi eben.

La Cadellada'n Zoño-etxea suagatu eben erkaldañ egazkiñak.

MUGAK SAÑATZEN

Paris—Gobernu'ak ontzat artutako erabagijak jañiten asi dira.

España'ra juateko agiri edo pasaportien gañ arteko ixan diran lagiak aldatu dabez, eta auferantz España'ratutek agiri onek ikuste berezijak biañko dabez. Eta au edozein lateñiri yuako. Españañak, baña lendik ezañita dagon legiaz geratzen dira.

Igandian olakorik ezeñ ezekijan ainbat atzeñitañek geratu biañ ixan eben mugan edo fronteran.

Bakañik, Perpignan'eko mugatik, ogei españañ igaro ziran.

Bayona'ko eñ-zaintzaliak zuzendu ziran mugatara, lagizko erabagijak zelan gordeten diran aztañenak egite añen.

Eta muga gustijetan getu dira, zaintzaliak.

GAU-ERDIAN

Gijon.—Amabiak inguruak dumbada zaratea zañatu zan ta zañatuaz duala dirudi.

Oviedo'n guda ikaragañia dogu. Kalietan diñardue jardun be. Erdi-inguruko kaleetatik dinamita-dunbotsak yatorkuz ta dinamita-gañok eñi-aldezleak nundik-nora duazan darakusgue.

Naranco'n kementsu ta bizi diñardue eñi-aldezleak.

SU-GAÑAK

Gijon.—Eñi-aldezlien suagaketak eta dinamita-durak Oviedo'ko etxe batzuk sutan ipiñi dabez. Erdi-aldeko-etxeak dira gaiñera sutan dagozanok.

SANTO DOMINGO URI-BASTAÑA ARTU DABE

Gijon.—Alde guztietan dañaie jo ta jo eñi-aldezliak. Oviedo'ko kaleetan auñera duaz ta erkaldañen mende dogu Santo Domingo etxedia.

¡Toki onean zeok!

—Queipo'k ezur eta guzi jango omen dizkik abertzaleak, Bilbao'n sartzen danean.

—Ordurako ortzak erorikо zaizkak Txomin!

PAXISTEN ARTIAN

Altzola'tik bialdutakoak diñoena

Altzola'tik paxistak bialdu dabezan lau andra ta bost ume eldu ziran gure artera. Lekeitio'ra etoñi yakuzan eta ara etozala dunbadaka ekin eutsen paxistak bilduñtzeko asmoz edo. Erdi-tatañez eldu ziran gure guda-lubanetara.

Altzola'n bizi zan Añaga'tañ Mariano Mendaro'n il eben. Eibar'en lan egiten eban Añaga oñek. Frente Popular'añ bazkariak emon eutsozalako il eben ausago. Altzola'korik ez dabe il. Espe artu eben 19 urte inguruko bilbotañ gudari bat, bai il eben auzirik ez ezetariko lege argibiderik egiteka. Komandantearengana eruan ostean il egin eben. Balneario-atzean beste saspi, be, il ebezan.

Elgoibar'ko alkate zan Balanzategi' tañ Pepe Iruña'ra eruan eben eta bere bañirik ez dabe.

Iru lau egunetan atxilotuta eukl ebezan Altzola'tañ batzuk, baiña oraiñor, be, ez dago espetxean

Bost edo sei baseritarei ipiñi tsoez izun edo multak. Ulerik tse iñori ebagi. Ituarte Jatetxean tean il egin eben. Balneario-atzean tik eredíak edo muebliak atara dabez.

Euzkeraz egiten iñori, be, ez dautsoe laketzen eta, izkuntz ori guztiz bastañu beañ dala diñoe. Euzkeraz egiten dabenak zigortu egiten dabez askotan.

Bilbao'ko bizitzari ta Bilbao'ko nasteei buñuz esaten ebezan guzuñak iñork ez ebazan siñesten.

Umetxu guztiak "flecha" edo "Pelayo" egin dabez ta gudari ibilerak erakusten dautsoez Altzola'ratu ziranekoxe ekin eutsen oñetan.

Altzola'n gaste bat geratu zan eta bera Falanke'n bazkideñu zan. Beste gizonak Iges egin eben.

Lenengotan eñitañ guztiak bildufez ikara ipiñi ebezan. Uleak ebagi beañ eutsezala, "rizino" emongo eutsela, t. a. esaten ebezan. Olakorik ez dabe egin oñaitiño ta "amenazok" gitxitu dira.

Baseritañak Kalamua'ra bidegiñera eruaten dabez ta ezer ez dautse ordaintzen, juan nai ez ba-dabe, multea edo izuna leporatzen dautse.

Altzola'tik guda-lubanetara bitañtean dagozan baseñak ustu egin dabez ta euren gauza guztiak ekañi eragiten dautsez ta garita artuak Mendaro'ko urun-olara-eruan biañ dabe.

Lanik ez dago-ta jan gura dabenak eurak auñeratuta eukenetik edo iñori eskatuta jan beañ.

Madrid'en

Jarama aldean aste gustian ezta ez atzerarik ez aurrerarik egin, gogor jo danarren.-Ogetalau egazkin galdu ditue paxistak astean.

MADRID'GO GUDA-OÑETAKO GORABERAK

Jarama'n egundo baiño biziago gudatu dira alderdibiok; beste tokietan bare-bare egon dira.

Arañegu-añatsaldeko zapustua artu eben-ezkero paxistak toki batzuetan atzera egin dabe. Eñi-aldezliak jo ta jo jañaitu dabe

Arañegu-añatsaldeko jarduna-ezkero atzo eñi-aldezliak paxistei kendutako tokietan guda-lubenak sendotu ta ondo ipinten jardun dabe.

Areriuok guztiz kukilduta adorekatuta doguz. Auñera egin-naiz asi eben joaldian nekatuta eñi-aldezliak añezkero emon dautsezan zapustuekin adorekatuta doguz. Eñi-aldezlien joaldi onetan iletan eta zauritutan asko izan dabez

Alemandañak bialdu dautsoezan bultzi ta belbilak arañeguko ilak ta zauriruak jasoten jardun eben atzo Arazo onetan, be, naiko zeregin dabe Zauritutan eta iletan, be, asko izan dabez. Galbide oneik ondamendi aundia sortu dabe Franco'ren gudarosteañn. Utsuneak beteten naiko zeregin izango dabe.

Auferantzean laguntasunik izango ez dabenik eta utsunarik bete ezin al-daikenik ez dogu esan nai. Orain zortzi egun badiz'eratu ziran italiañ-taldeak, guztiz ondo orniduta gaiñera. Portugal'go mugan dagoz alemandañ gudari-taldeak, be. Alemandañ guda-Agintaritza Nagusia'ren esanak egiteko gertu.

Erkaldañak doguz izan joaldi astale. Kementsu diñardue.

Arañegu gabez ta atzo goizez erkaldañak bake txañ emon dautse paxistoi. Une batzuetan euren guda-laban sailak ausita daukez erkaldañok

Apurka-apurka guda-luban sailak menderatuaz duaz eñi-aldezliak.

Madrid'ko guda-oiñetan ez da egaiñik agertu, egualdi txañ egiteo eban eta.

La Marañosa'ko esia estutuaz yuaku. Eñi-bañua geiena ustu dabe ta kañoi batzuk besterik ez dauke ta, e-aldezliak kañoiok apurtu egin dautsoez suagen-bidez.

Coruña bitxabaletik ta Talavera'ra duanetik kañoiak eta guda-tresnak ta gudarik kendu egin dabez.

Perales del Rio artu nai izan dabe paxistok baiña eñi-aldezliak ez dautsoe laga ta paxista taldeak, be, banandu dabez erkaldañ suagalariak.

Paxisten beste erazo baten ondoren be, erkaldañak zapustu edañ emon eutsen paxistoi.

Eta areriuei atsedena egin egien atirik ez emoteko jo ta jo diñarñue eñi-aldezliak. Madrid ondoko guda-oiñetan bakea izan dogu.

Hospital Clinico ustu egingo ete-dan ustea dago; eñi-aldezlien erasoei ezin eutsi daikiueta.

JARAMA ALDEAN, BUÑUKAN ETA GELDIL

Madrid.—Joan dan aste osoan, eñizaleak añabete luñik ez dabe galdu. eta buñuka-lekua lengo berbera da Jarama Ibayaren sartaldean iru milara.

Buñukariak bardin bardinki ari izan bait-dira, ez bata ez bestek lortu dabe ezertxo.